TXOSTENA

24

# EMAKUME ETA GIZONEN PRESENTZIA EUSKADIKO ERABAKI GUNEETAN

EMAKUNDE

# EMAKUME ETA

# GIZONEN

# PRESENTZIA EUSKADIKO

# ERABAKI

# GUNEETAN

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Gasteiz 2009

| | |
|---|---|
| **IZENBURUA:** | "Emakume eta gizonen presentzia Euskadiko erabaki guneetan" |
| **EDITOREA ETA EGILEA:** | EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz |
| **LAN TALDEA:** | Genero Ikasketen Taldea. UPV-EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saila: Ainhoa Novo Arbona, Arantxa Elizondo Lopetegui, Eva Martínez Hernández, Jaione Almirante Uranga |
| **MAKETAZIOA ETA JARRAIPENA:** | ARRIN. Komunikazioa eta Diseinua |
| **DISEINU GRAFIKOA:** | Ana Badiola, Isabel Madinabeitia eta Ana Rincón |
| **DATA:** | 2009ko abendua |
| **DESKRIPTOREAK:** | Politika arloko parte-hartzea, gizarte arloko parte-hartzea, tokiko administrazioa, foru administrazioa, autonomia administrazioa, administrazioko goikargudunak, boterea, kristalezko sabaia, alderdi politikoak, enpresak, berdintasunerako politikak, datu estatistikoak |
| **ALE ZENBAKIA:** | 500 |
| **INPRIMAKETA:** | Estudios Gráficos ZURE |
| **ISBN:** | 84-89630-21-6 978-84-89630-21-5 |
| **L.G.:** | BI-3319-09 |

***Salneurria: 20 euro***

# AURKIBIDEA

**AURKEZPENA** . . . 7

**SARRERA** . . . 11

**1. ERAKUNDE LEGEGILEAK** . . . 15

- **1.1.** Eusko Legebiltzarra . . . 17
- **1.2.** Batzar Orokorrak . . . 24
- **1.3.** Udalak . . . 27
- **1.4.** Ordezkaritza estatu mailan . . . 31

**2. ERAKUNDE EXEKUTIBOAK** . . . 33

- **2.1.** Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak . . . 35
- **2.2.** Eusko Jaurlaritzako Erakunde eta Entitate Publikoak eta Foru Aldundietakoak . . . 38
- **2.3.** Eusko Jaurlaritzari atxikitako kide anitzeko organoak . . . 41
- **2.4.** Alkatetzak . . . 47

**3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA JUDIZIALA** . . . 51

- **3.1.** Administrazio Publikoetako pertsonala . . . 53
- **3.2.** Administrazio Judizialeko pertsonala . . . 59

**4. ALDERDI POLITIKOAK ETA HAUTAGAITZAK** . . . 65

- **4.1.** Afiliazioa eta zuzendaritzak . . . 67
- **4.2.** Hauteskundeetako hautagaitzak . . . 69
  - **4.2.1.** Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2005 . . . 70
  - **4.2.2.** Foru eta Udal hauteskundeak 2007 . . . 72
  - **4.2.3.** Hauteskunde orokorrak 2008 . . . 75

**5. ERAKUNDE SOZIALAK ETA PROFESIONALAK** . . . 79

- **5.1.** Sindikatuak eta erakunde patronalak . . . 81
- **5.2.** Elkarte profesionalak eta Merkatal Ganbarak . . . 83
- **5.3.** Entitate finantzarioak, Enpresak eta Kooperatibak . . . 88
- **5.4.** Unibertsitateak . . . 93

# A
# AURKEZPENA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburua da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea, benetakoa eta eraginkorra, euskal gizarteko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizartearen esparru guztietan. Eta gizartea eraldatzeko estrategia horren zutabea euskal gizartea sakon ezagutzean datza nahitaez. Gizartea ikertuz errealitatea ezagutzea sustatu du Emakundek sortu zenez geroztik, eta bihar-etzi ere bide horri jarraituko dio.

Filosofia horren barruan kokatzen da *"Emakume eta gizonen presentzia Euskadiko erabaki guneetan"* azterlana. Emakundek sustatu du *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legeak* jasotzen dituen parekotasunaren printzipioek duen eragina neurtzeko helburuaz, izan ere, legeak daukan neurri zehatzetako batek dio  administrazio eta politika maila jakin batzuetan derrigorrez bi sexuen presentziak %40 izan behar duela gutxienez. 2005 urtean egindako antzeko ikerketa bat eguneratzera dator eta zabaldu egiten du, gainera, gizarteko erabaki gunetzat hartzen diren guneen multzoa, sartuz orain arte behar besteko arreta izan ez duten batzuk, adibidez, justizia administrazioa, elkarte profesionalak, merkataritza ganberak, entitate finantzarioak, enpresak, kooperatibak, unibertsitateak, eta abar.

Eskerrak eman nahi dizkiot azterlana egin duen ikerketa-taldeari, eta nahi nuke, argitalpen hau argitaratuz eta hedatuz, gizarte berdinzaleago bat eraikitzen beste urrats bat egitea.



MARIA SILVESTRE
EMAKUNDE - Emakumearen Euskal
Erakundeko zuzendaria

SARRERA

*Emakume eta gizonen presentzia Euskadiko erabaki guneetan* txostenaren helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE aurrerantzean) erabaki guneetan dauden erakunde politiko, ekonomiko eta sozial nagusienak nola osatuta dauden aztertzea da. 2005 urtean Emakundek *Euskadiko gizon eta emakumeek duten partaidetza sozial eta politikoa zenbakitan* txostena argitaratu zuen, esku artean duzun idatzi hau egin dutenek idatzitakoa. Orain aurkezten den txostenak, batetik eguneratu egiten ditu han jasotako adierazlerik nagusienak eta, bestetik datu berriak sartzen ditu, parte hartze eta erabakitze politikoari buruzkoak, horietara emakumeak zenbat sartu diren aztertu ahal izateko. Hala, zabaldu egin nahi da gizarteko erabaki gunetzat hartzen diren guneen multzoa, sartuz orain arte behar besteko arreta izan ez duten batzuk, adibidez, justizia administrazioa, elkarte profesionalak, merkataritza ganberak, entitate finantzarioak, enpresak, kooperatibak, unibertsitateak, eta abar.

Berdintasunaren alde jardun publikoek egin duten lorpen berrienetako bat *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea* da, Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailean onartutakoa. Lege horrek, hain zuzen, hainbat neurri jasotzen ditu berdintasuna bultzatzeko parte hartze soziopolitikoan, bai administrazio publikoan eta bai elkarte eta erakunde sozialetan. Xedapen horien bidez esaten da emakume eta gizonen arteko oreka edo parekotasuna nola zaindu behar den, izan ere legeak daukan neurri zehatzetako batek dio administrazio eta politika maila jakin batzuetan derrigorrez bi sexuen presentziak %40 izan behar duela gutxienez. Hiru urte pasatxo dira Lege hori onartu zela, eta txosten honek ekarpen bat egiten du, neurtu ahal izateko parekotasunaren printzipioak duen eragina parte hartze sozial, ekonomiko eta politikoan.

Azterketa honetan bildu egin dira hainbat adierazle kuantitatibo; erakunde sozial, ekonomiko eta politikoei buruzkoak: Horretarako atal batzuk sartu dira, hots, erakunde legegileak, erakunde exekutiboak, administrazio publikoak, alderdi politikoak eta hauen hauteskundeetako hautagaitzak, eta hainbat enpresa-entitate, erakunde sozial eta profesional. Erabilitako iturriak batik bat erakunde ofizialak izan dira eta informazioak aipagai dituen erakunde eta entitateak.

# 1

# ERAKUNDE LEGEGILEAK

## EUSKO LEGEBILTZARRA 1.1

Eusko Legebiltzarrean emakumearen presentziak gora egin du eratu zenetik, 1980an, pasa diren zortzi legegintzaldietan zehar. Lehendabiziko legegintzaldian %6,7 zeukaten emakumeek organo legegilean, eta 2005ean zortzigarren legegintzaldiko ganbera osatzeko unean emakumeek %50 baino gehiago zeukaten.

**TAULA 1.1.** Eusko Legebiltzarrean gizon eta emakumeek izan duten presentziaren bilakaera legegintzaldiaren arabera (1980-2005)

| LEGEGINTZALDIA | I | II | III | IV | V | VI | VII | VIII |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1980** | **1984** | **1986** | **1990** | **1994** | **1998** | **2001** | **2005** |
| Emakumeak % | 6,7 | 10,7 | 13,3 | 20,0 | 24,00 | 29,3 | 37,3 | 53,3 |
| Gizonak % | 93,3 | 89,3 | 86,7 | 80,0 | 76,0 | 70,7 | 62,7 | 46,7 |

*Iturria*: Egileek prestatutakoa oinarritzat hau hartuta, Elizondo, Arantxa (1999): *La presencia de las mujeres en los partidos políticos de la Comunidad Autónoma de Euskadi*. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz eta Martinez Hdez, Eva eta Elizondo Lopetegi, Arantxa (2005): *"Luces y sombras del papel político de las mujeres en la Comunidad Autónoma del País Vasco" en VII Congreso Español de Ciencia Política y de la Administración*
(http://www.aecpa.es/congreso_07/archivos/area6/GT-22/MartinezyElizondo.pdf)
*Oharra*: Ganberak osatzen diren uneari buruzkoak dira datuak.

Legebiltzarrean emakumeek daukaten presentzia pixkana joan da igotzen, baina aldaketarik handiena zazpigarren legegintzalditik zortzigarrenera gertatu zen, emakumeen portzentajea %37,3tik %53,3ra pasa zenean. Igoera hori zalantzarik gabe lotu daiteke 2005eko martxoan onartu zen *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin* (1). Lege honek, VII. Euskal legegintzaldian onartu zenak, zenbait xedapen dauzka emakumeen partaidetza politikoari buruz. Eusko Legebiltzarrari berari dagokionean legeak badu neurri bat bermatzen duena emakumeen presentzia orekatua hauteskundeetako hautagaitzetan. Arau honek ez du nahi eta ez erabakitzen emakumeen presentzia parekoa erakundeetan. Hala ere, Eusko Legebiltzarrean aplikazioak eragin hau izan du eta 15 puntuko igoera ekarri du portzentajean aurreko legegintzaldiko emakume kopuruarekiko.

(1) Euskal Herriko Arduralaritzaren Aldizkaria, 2005/03/2.

**GRAFIKOA 1.1.** Gizon eta emakumeen presentziaren bilakaera Eusko Legebiltzarrean. 1980-2005.




*Iturria*: Egileek prestatutakoa oinarritzat hau hartuta, Elizondo, Arantxa (1999): *La presencia de las mujeres en los partidos políticos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.* Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz eta Martinez Hdez, Eva eta Elizondo Lopetegi, Arantxa (2005): *"Luces y sombras del papel político de las mujeres en la Comunidad Autónoma del País Vasco"* en VII Congreso Español de Ciencia Política y de la Administración
(http://www.aecpa.es/congreso_07/archivos/area6/GT-22/MartinezyElizondo.pdf)

Zortzigarren legegintzaldiko Eusko Legebiltzarrak lehen aldiz historian emakumea du gehiengoa. Ordezkaritza horrek gainditu egiten ditu emakume ordezkaritzarik handiena duten herrialdeen mailak, adibidez Suedia eta Finlandia, %47 eta %41 daukate hurrenez hurren.

Autonomia Erkidegoetan, EAE eta Gaztela-Mantxa dira bakarrak emakumeen presentzia %50 baino gehiago daukatenak. Esan daiteke emakumeen portzentajea handiagoa dela, justu, parekotasuna daukaten hautagaitzak bermatzen edo bultzatzen dituzten legeak onartu dituzten autonomietan, hau da, Gaztela-Mantxan, Balear Uharteetan, Andaluzian eta EAEn.

**TAULA 1.2.** Emakumeak parlamentu autonomikoetan. 2008.

| AUTONOMIA ERKIDEGOA | JARLEKUAK GUZTIRA | % EMAKUMEAK |
|---|---|---|
| Gaztela-Mantxa | 47 | 53,2 |
| Balear Uharteak | 59 | 49,2 |
| Andaluzia | 109 | 45,9 |
| Erkidego Valentziarra | 99 | 45,5 |
| Gaztela-Leon | 83 | 43,4 |
| Madril | 120 | 42,5 |
| Kantabria | 42 | 40,5 |
| Kanariar uharteak | 60 | 40,0 |
| Extremadura | 65 | 40,0 |
| Ceuta | 25 | 40,0 |
| Melilla | 25 | 40,0 |
| Errioxa | 33 | 39,4 |
| Murtzia | 46 | 39,1 |
| Nafarroa | 50 | 38,0 |
| Katalunia | 135 | 36,3 |
| Aragoi | 67 | 35,8 |
| Asturias | 45 | 33,3 |
| Galizia | 75 | 33,3 |
| GUZTIRA | 1.260 | 41,7 |

*Iturria*: Egileek prestatutakoa Emakumearen Institutuko datuekin, <http: www.migualdad.es/mujer> (kontsulta data: Azaroa 2008)

Ganbera sortu zenetik, datuak zertxobait aldatu dira, eta, gaur egun, emakumeak %57,3 dira; gizonak, aldiz, %42,7. Zer lurralde historikotatik datozen kontuan hartuta, 43 emakumezko parlamentarietatik 12 Araban hautatu dituzte, 15 Bizkaian eta 16 Gipuzkoan.

**TAULA 1.3.** Eusko Legebiltzarraren osaera Lurralde Historikoaren eta sexuaren arabera. 2008.

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| Araba | 12 | 48 | 13 | 52 | 25 |
| Bizkaia | 15 | 60 | 10 | 40 | 25 |
| Gipuzkoa | 16 | 64 | 9 | 36 | 25 |
| GUZTIRA | 43 | 57,3 | 32 | 42,7 | 75 |

*Iturria*: Egileek prestatutako datuak Eusko legebiltzarreko web orrialdea oinarri hartuta. http://www.parlamento.euskadi.net (Kontsulta data: Urria 2008)

Eusko Legebiltzarrean emakume eta gizonek daukaten presentzia aldatu egiten da indar politikoen arabera. Zentzu honetan egon den bilakaera ikusirik esan daiteke talde politiko ezberdinetan egon diren emakumeen presentziak gora egin duela etenik gabe 8 legegintzaldietan, 1980tik aurrera. Batez ere 1994an etorri zen aldaketa esanguratsua sexuen proportzioan ia talde politiko guztietan, maiz emakumeek %25 baino gehiago lortu zuten. 2005ean joera finkatu egin da eta %30a gainditu du talde politiko guztietan eta parekotasunera hurreratu da taldeen erdia baino gehiagotan.

**TAULA 1.4.** Eusko Legebiltzarrean gizon eta emakumeek izan duten presentzia alderdi politikoaren arabera. Portzentaje horizontalak. 1980-2005.

| | 1980 | | 1994 | | 1986 | | 1990 | | 1994 | | 1998 | | 2001 | | 2005 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | % E | % G | % E | % G | % E | % G | % E | % G | % E | % G | % E | % G | % E | % G | % E | % G |
| EAJ-PNV | 12,0 | 88,0 | 15,6 | 84,4 | 11,8 | 88,2 | 27,3 | 72,7 | 27,3 | 72,7 | 28,6 | 71,4 | -- | -- | -- | -- |
| PNV/EA | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | 39,4 | 60,6 | 48,3 | 51,7 |
| EA | -- | -- | -- | -- | 30,8 | 69,2 | 11,1 | 88,9 | 37,5 | 62,5 | 16,7 | 83,3 | -- | -- | -- | -- |
| HB-EH-SA-EHAK | 9,1 | 90,9 | 9,1 | 90,9 | 15,4 | 84,6 | 15,4 | 84,6 | 36,4 | 63,6 | 28,6 | 71,4 | 28,6 | 71,4 | 88,9 | 11,1 |
| EE | 0 | 100 | 0 | 100 | 11,1 | 88,9 | 33,3 | 66,7 | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- |
| PSE -EE | 0 | 100 | 5,3 | 94,7 | 5,3 | 94,7 | 12,5 | 87,5 | 25,0 | 75,0 | 35,7 | 64,3 | 46,2 | 53,8 | 50 | 50 |
| EB-IU | 0 | 100 | 0 | 100 | 0 | 100 | 0 | 100 | 16,7 | 83,3 | 0 | 100 | 33,3 | 66,7 | 33,3 | 66,6 |
| PP | 0 | 100 | 14,3 | 85,7 | 0 | 100 | 0 | 100 | 0 | 100 | 31,2 | 68,8 | 31,6 | 68,4 | 46,7 | 53,3 |
| CDS | 0 | 100 | -- | -- | 0 | 100 | 0 | 100 | -- | -- | -- | -- | -- | -- | | |
| UA | -- | -- | -- | -- | -- | | 66,7 | 33,3 | 20 | 80 | 50 | 50 | -- | -- | | |
| ARALAR | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | 100 | 0 |
| **GUZTIRA** | **6,7** | **93,3** | **10,7** | **89,3** | **13,3** | **86,7** | **20,0** | **80,0** | **24,0** | **76,0** | **29,3** | **70,7** | **37,3** | **62,7** | **53,3** | **46,7** |

*Iturria*: Egileek prestatutakoa oinarritzat hau hartuta, Elizondo, Arantxa (1999): *La presencia de las mujeres en los partidos políticos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.* Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz eta Martinez Hdez, Eva eta Elizondo Lopetegi, Arantxa (2005): "Luces y sombras del papel político de las mujeres en la Comunidad Autónoma del País Vasco" en *VII Congreso Español de Ciencia Política y de la Administración*
(http://www.aecpa.es/congreso_07/archivos/area6/GT-22/MartinezyElizondo.pdf)
*Oharra*: Ganberak osatzen diren uneari buruzkoak dira datuak.
-- = ez dauka hautagaitzarik.

Gaur egun badira ezberdintasunak indar politikoen artean gai honetan, baina gehienek badaukate parekotasuna edo inguratzen dira ordezkaritza pareko batera, sexu bakoitzak %40-60 duela. Nabarmendu egiten da EHAK, ordezkarien %88,9 emakumea du, aitzitik Aralarrek ordezkarietan bakarra du emakumezkoa eta Ezker Batuak ez dauka ordezkari bakar bat ere emakumezkoa hiru ordezkarien artean.

**TAULA 1.5.** Eusko Legebiltzarraren osaera sexu eta alderdiaren arabera. 2008.

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| EAJ-PNV | 14 | 63,6 | 8 | 36,4 | 22 |
| PSE | 10 | 55,5 | 8 | 44,5 | 18 |
| PP | 6 | 40,0 | 9 | 60,0 | 15 |
| EHAK | 8 | 88,9 | 1 | 11,1 | 9 |
| EA | 4 | 57,1 | 3 | 42,9 | 7 |
| EB-IU | 0 | 0,0 | 3 | 100,0 | 3 |
| Aralar | 1 | 100,0 | 0 | - | 1 |
| GUZTIRA | 43 | 57,3 | 32 | 42,7 | 75 |

*Iturria*: Egileek prestatutako datuak, Eusko Legebiltzarreko web orrialdea oinarri hartuta. http://www.parlamento.euskadi.net (Kontsulta data: Urria 2008)

Zortzigarren legegintzaldiak dauzkan berrikuntzen artean aipatzekoa da legebiltzarreko presidentea historian lehen aldiz emakumea dela, Izaskun Bilbao. Azken urte hauetan joera hori bera erakutsi dute beste autonomia erkidego batzuek, parlamentu autonomikoen presidentetza %21 zen emakumeena eta %42 izatera pasa da. 2007 urtean 8 emakumek eta 11 gizonek zeukaten erkidegoetako parlamentuen eta hiri autonomoen presidentetza.

**GRAFIKOA 1.2.** Erkidegoetako parlamentuen eta Hiri Autonomoen presidentetza. 2005-2007.




*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, oinarri hartuta *Las Mujeres y la Toma de Decisión* (2007) txostena, Themis-ek egindakoa.

Parlamentuko presidentziaz gain, ganberako barne antolamenduan aipatzekoa da mahaiaren osaera kideen sexuaren arabera. Garbi ikusi dugu goian nola lehen zazpi legegintzaldietan emakume bakar bat ere ez den izan ganberako presidentea edo lehen presidenteordea. Izan ere, 2005eko hauteskundearen aurretik bi emakume egonak zeuden bigarren presidenteordezkoan (lehen eta seigarren legegintzaldian) eta 6 idazkaritzetan. VIII. legegintzalditik aurrera gauzak aldatu dira eta mahaiaren presidentetza eta lehen presidenteordezkoa emakumeen eskuetan dago.

Aitzitik, ez da ikusi aldaketarik Bozeramaileen Batzordean, han emakumeen presentziarik apenas ikusi da ganbara osatu zenetik. Hiru emakume izan dira bakarrak bertan parte hartzen Eusko Legebiltzarraren historian. Nabarmentzekoa da, gaur, nahiz eta plenoan emakumeen presentzia nagusia den, horietako bakar bat dela bere talde parlamentarioko bozeramailea.

Batzordeen presidentziak jasan ditu aldaketa batzuk VIII. legegintzalditik aurrera. Hala, 2005 arte 19 emakume izan ziren batzordeburu legegintzaldietan, orotara osatutako 103 batzordeetan, hau da %18,4. VIII. legegintzaldian emakumeak dira batzordeen erdia baino gehiagotan buru, eta batzordeburu ordeko eta idazkari gehiago dira lehen baino.

**TAULA 1.6.** Emakumeak parlamentuko karguetan Eusko Legebiltzarreko legegintzaldien arabera. 1980-2008.

| | LEGEGINTZALDIAK | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EMAKUME KOPURUA | I | II | III | IV | V | VI | VII | VIII | GUZTIRA | % EMAKUMEAK |
| PARLAMENTUKO MAHAI (PARTAIDEAK: 5) | | | | | | | | | | |
| Presidentea | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 | 12,5 |
| Presidenteordea 1.a | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 | 12,5 |
| Presidenteordea 2.a | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 2 | 25,0 |
| Idazkaritza 1.a | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 2 | 25,0 |
| Idazkaritza 2.a | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 4 | 50,0 |
| BOZERAMAILEEN BATZORDEA | | | | | | | | | | |
| Osaera guztira | 7 | 11 | 11 | 11 | 10 | 9 | 9 | 6 | 74 | |
| Emakume kopurua | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 1 | 3 | 4,1 |
| BATZORDEAK | | | | | | | | | | |
| Batzorde kopurua | 18 | 15 | 13 | 14 | 13 | 15 | 15 | 17 | 120 | |
| Presidentea | 2 | 1 | 0 | 2 | 3 | 5 | 6 | 10 | 29 | 24,2 |
| Presidenteordea | 2 | 2 | 2 | 1 | 2 | 4 | 5 | 11 | 29 | 24,2 |
| Idazkaritza | 0 | 3 | 1 | 2 | 6 | 7 | 7 | 13 | 39 | 32,5 |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa oinarri hau hartuta: Zubero, Agurtzane. 2003. *¿Existen diferencias en el hacer político en hombres y mujeres del Parlamento Vasco?* Tesina Master en Igualdad de Mujeres y Hombres, UPV/EHU eta Eusko Legebiltzarreko web orrialdea. http://www.parlamento.euskadi.net (Kontsulta data: Urria 2008).

Legegintzaldi guztietan jarraipena izan duten batzordeak xeheago aztertzen baditugu, sexuaren arabera beti ere, aurkitzen dugu emakumeen presentzia handiagoa honako batzordeetan: Hezkuntza eta Kultura, Giza Eskubideak, Bateraezintasunak, Emakumea eta Gazteria eta Hedabideen Kontrola. Aipatzekoa da, baita ere, emakumeen presentzia maila handia Emakumea eta Gazteria Batzordean, 1998an abiatu zen seigarren legegintzaldian sortutakoa: 13 parlamentari emakumezko legegintzaldi hartan eta 16 oraingoan.

**TAULA 1.7.** **Emakumeak batzorde parlamentarioetan Eusko Legebiltzarreko legegintzaldien arabera. 1980-2008.**

| | I | II | III | IV | V | VI | VII | VIII | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza eta Arrantza | - | - | 0 | 2 | 2 | - | - | 10 | 14 |
| Europako Gaiak eta Kanpo Harremanak | - | - | - | - | 8 | 5 | 5 | 8 | 26 |
| Hedabideen gaineko kontrola (*) | 1 | 2 | 2 | 4 | 9 | 9 | 9 | 8 | 44 |
| Zuzenbide zibila eta foru-zuzenbidea | 1 | 1 | 0 | 4 | - | 0 | - | - | 6 |
| Giza eskubideak (**) | 2 | 5 | 7 | 6 | 9 | 7 | 9 | 10 | 55 |
| Ekonomia, Ogasuna eta Aurrekontuak | 1 | 1 | 1 | 4 | 3 | 3 | 5 | 9 | 27 |
| Hezkuntza eta Kultura | 3 | 3 | 7 | 10 | 9 | 6 | 10 | 14 | 62 |
| Bateraezintasunak | 0 | 3 | 5 | 3 | 10 | 11 | 7 | 12 | 51 |
| Industria eta Nekazaritza | 0 | 0 | 2 | 3 | 7 | 6 | 6 | - | 24 |
| Industria eta Turismoa (***) | - | 0 | - | - | - | 3 | 6 | 10 | 19 |
| Erakundeak eta Herrizaingoa | 0 | 0 | 3 | 4 | 8 | 6 | 6 | 9 | 36 |
| Emakumea eta Gazteria | - | - | - | - | - | 13 | 15 | 16 | 44 |
| Drogamenpekotasun politika | - | 4 | 0 | 5 | 8 | - | - | - | 17 |
| Osasuna | - | - | - | - | - | 13 | 9 | 14 | 38 |
| Lana eta Gizarte Ongizatea (****) | 2 | 3 | - | - | - | 6 | 10 | 15 | 36 |
| Lana eta Osasuna | - | - | 5 | 9 | 13 | - | - | - | 27 |
| Presako legegintza, Araudia eta Gobernua | 1 | 0 | 3 | 2 | 4 | 3 | 2 | 9 | 24 |
| Beste batzuk | 9 | 6 | - | 5 | 2 | - | 2 | 29 | 53 |

*Iturria:* Egileek prestatutako informazioa oinarri hau hartuta: Zubero, Agurtzane. 2003. *¿Existen diferencias en el hacer político en hombres y mujeres del Parlamento Vasco?* Tesina Master en Igualdad de Mujeres y Hombres, UPV/EHU eta Eusko Legebiltzarreko web orrialdea. http://www.parlamento.euskadi.net (Kontsulta data: Urria 2008).
*Oharrak*: (*) VIII. legegintzaldian izen honekin: EITBren Legebiltzar Kontrola. (**) VIII. Legegintzaldian izen honekin: Giza Eskubideak eta Herritarren Eskaerak. (***) VIII. Legegintzaldian izen honekin: Industria, Merkataritza eta Turismoa. (****) VIII. Legegintzaldian izen honekin: Lana eta Gizarte Gaiak.

Gaurko egunean emakumeak gehiengoa dira batzordeen erdia baino gehiagotan, bereziki aipatzekoa da haren presentzia hauetan: Emakumea eta Gazteria, Lana eta Gizarte Gaiak, Osasuna, Hezkuntza eta Kultura eta Bateraezintasunak, hauetan partaidetza %70 baino gehiago du. Aurkako muturrean, emakumeek ez dute %40 harrapatzen (nahiz eta hurbiltzen diren) honako hauetan: Europako Gaiak eta Kanpo Harremanak, EITBren Legebiltzar Kontrola, Presako legegintza, Araudia eta Gobernua. Aipatzekoa da azken kasu hau, Eusko Legebiltzarreko Araudiak ezarritako bi batzorde derrigorrezkoetako bat baita. Elementu funtsezkoa da parlamentuaren funtzionamenduan, batzorde honek erabakitzen ditu barne erregimenari buruzko gauzak, aztertu eta onartzen du ganbarako aurrekontuen proiektua,

aurrekontua gauzatzea kontrolatzen du, eta gainera, Diputazio Iraunkor egiten da, eta hala lan egiten du Parlamentua ohiko jardunetik kanpo dagoenean eta legegintzaldi batetik besterako tarteetan.

**TAULA 1.8.** Batzorde parlamentarioen osaera sexuaren arabera Eusko Legebiltzarreko zortzigarren legegintzaldian. 2008.

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|
| | (N) | % | (N) | % |
| Nekazaritza eta Arrantza | 10 | 55,5 | 8 | 44,5 |
| Europako Gaiak eta Kanpo Harremanak | 7 | 38,9 | 11 | 61,1 |
| EITBko Legebiltzar Kontrola | 7 | 38,9 | 11 | 61,1 |
| Guggenheim-eko irregulartasunei buruzko ikerketa | 7 | 58,3 | 5 | 41,7 |
| Balenziaga museoko irregulartasunei buruzko ikerketa | 7 | 58,3 | 5 | 41,7 |
| Giza Eskubideak eta Herritarren Eskaerak | 10 | 55,5 | 8 | 44,5 |
| Ekonomia, Ogasuna eta Aurrekontuak | 9 | 50,0 | 9 | 50,0 |
| Hezkuntza eta Kultura | 13 | 72,2 | 5 | 27,8 |
| Bateraezintasunak | 12 | 70,6 | 5 | 29,4 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 9 | 50,0 | 9 | 50,0 |
| Erakundeak eta Herrizaingoa | 9 | 50,0 | 9 | 50,0 |
| Emakumea eta Gazteria | 16 | 88,9 | 2 | 11,1 |
| Lurralde Antolamendua, Garraioa eta Ingurumena | 8 | 44,4 | 10 | 55,6 |
| Osasuna | 14 | 77,8 | 4 | 22,2 |
| 1976ko martxoaren 3ko gertaerak | 6 | 54,5 | 5 | 45,5 |
| Lana eta Gizarte Lanak | 15 | 83,3 | 3 | 16,7 |
| Presako legegintza, Araudia eta Gobernua | 9 | 39,1 | 14 | 60,9 |

*Iturria:* Egileek prestatutako datuak oinarri hau hartuta: Eusko Legebiltzarreko web orrialdea. <http://parlamento.euskadi.net> (Kontsulta data: Urria 2008)

## BATZAR OROKORRAK 1.2

Foru Erakundeetan emakume kopuruak gora egin du azken urteetan. Emakume batzarkideak %6,1 ziren 1979an eta 2007an, aldiz, %41,2, hiru Batzar Orokorrak osatzeko unean. Igoera hau oro har pausuka eman da, lehen aurrerapauso nagusia 1991n izan zen Lurralde Historikoetako Batzar Orokorretan emakumeek %10 inguru edo gehiago izan zutenean. Denboran hurbilago, *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea* onartu zenetik emakumeen kopurua finkatu egin da, %40 inguru hiru Lurralde Historikoetan. Lege horrek, Eusko Legebiltzarrerako egiten duen bezala, xedapen bat

dauka emakumeen presentzia bermatzeko Batzar Orokorretarako hautagaitzetan. Guztiarekin ere, emakumeen presentzia nabarmen igo dela ikusten bada ere, aldaketak ez dira noski autonomia erkidegoko erakundearen mailakoak.

**TAULA 1.9.** Emakumeen presentziaren bilakaera (%) hiru Lurralde Historikoetako Batzar Orokorretan. 1979-2007.

| | 1979 | 1983 | 1987 | 1991 | 1995 | 1999 | 2003 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | % | % | % | % | % | % | % |
| Araba | 10,5 | 1,9 | 13,7 | 15,7 | 13,7 | 15,1 | 25,5 | 45,1 |
| Bizkaia | 4,4 | 7,8 | 7,8 | 13,7 | 21,6 | 33,3 | 41,2 | 37,1 |
| Gipuzkoa | 4,9 | 3,9 | 3,9 | 9,8 | 15,7 | 29,4 | 25,5 | 41,2 |
| GUZTIRA | 6,1 | 4,6 | 4,6 | 13,1 | 17,0 | 26,5 | 30,1 | 41,2 |

*Iturria*: Egileeena, oinarri honekin: Elizondo, Arantxa (1999): La presencia de las mujeres en los partidos políticos de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz eta eustat-eko http://www.eustat.es web orrialdea.
*Oharra*: Legegintzaldi bakoitzean ganberak osatzean jasotako datuak.

Gaur den egunean hiru lurralde historikoetako Batzar Orokorretan parekotasuna badago, kasu guztietan emakumeen presentzia %40 baino gehiago baita.

**TAULA 1.10.** Hiru Lurralde Historikoetako Batzar Orokorren osaera sexuaren arabera. 2008.

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| Araba | 21 | 41,2 | 30 | 58,8 | 51 |
| Bizkaia | 21 | 41,2 | 30 | 58,8 | 51 |
| Gipuzkoa | 22 | 43,1 | 29 | 56,9 | 51 |
| GUZTIRA | 64 | 41,8 | 89 | 58,2 | 153 |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, oinarri honekin: hiru lurralde historikoetako web orrialdeetan jasotako datuak <http:www.jjggalava.es; http: jjggbizkaia.net; http://www.jjgg-gipuzkoa.org> (Kontsulta data: Azaroa 2008)

Datuak nabarmenki aldatzen dira ganbara bakoitzean talde politikoen arabera. Hala, Arabaren kasuan, alderdirik gehienek sexuen arteko parekotasuna daukate osaeran.

Emakume kopuru gehien daukan alderdia EAE-ANV da (%75) eta beste muturrean EA dago, bi ordezkari bakarrak gizonezkoak ditu.

**TAULA 1.11.** Arabako Batzorde Orokorren osaera alderdi eta sexuaren arabera. 2008.

| | JARLEKUAK | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| PP | 15 | 6 | 40,0 | 9 | 60,0 |
| PSE-EE | 14 | 6 | 42,9 | 8 | 57,1 |
| EAJ-PNV | 14 | 5 | 35,7 | 9 | 64,3 |
| EAE-ANV | 4 | 3 | 75,0 | 1 | 25,0 |
| EB-A | 2 | 1 | 50,0 | 1 | 50,0 |
| EA | 2 | 0 | 0,0 | 2 | 100,0 |
| **GUZTIRA** | **51** | **21** | **41,2** | **30** | **58,8** |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, oinarri honekin: Arabako Batzar Orokorretako web orrialdeko datuak. <http://www.jjggalava.es> (Kontsulta data: Azaroa 2008)

Osaera Bizkaian baino anitzagoa da. Hiru alderdik bakarrik gainditzen dute emakumeen %40a, hots, EAJ, PSE eta EAE-ANV alderdiek. Aitzitik, Aralar eta EAk ordezkari bana daukate, gizonezkoa.

**TAULA 1.12.** Bizkaiko Batzorde Orokorren osaera alderdi eta sexuaren arabera. 2008.

| | JARLEKUAK | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| EAJ-PNV | 23 | 10 | 43,5 | 13 | 56,5 |
| PSE-EE | 14 | 6 | 42,9 | 8 | 57,1 |
| PP | 8 | 3 | 37,5 | 5 | 62,5 |
| EAE-ANV | 1 | 1 | 100,0 | 0 | 0,0 |
| EB-Berdeak | 3 | 1 | 33,3 | 2 | 77,7 |
| EA | 1 | 0 | 0,0 | 1 | 100,0 |
| Aralar | 1 | 0 | 0,0 | 1 | 100,0 |
| **GUZTIRA** | **51** | **21** | **41,2** | **30** | **58,8** |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, oinarri honekin: Bizkaiko Batzar Orokorretako web orrialdeko datuak. <http://www.jjggbizkaia.net> (Kontsulta data: Azaroa 2008)

Gipuzkoako kasuan emakumeek %40 gainditzen dute, soilik EAJ, PSE eta Aralar alderdietan. Beste muturrean EA dago, emakume bakarra daukate (%14,3) zazpi ordezkarien artean.

**TAULA 1.13.** Gipuzkoako Batzar Nagusien osaera alderdi eta sexuaren arabera. 2008.

| | JARLEKUAK | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| EAJ-PNV | 16 | 10 | 62,5 | 6 | 37,5 |
| PSE-EE | 16 | 7 | 43,7 | 9 | 56,3 |
| EA | 7 | 1 | 14,3 | 6 | 85,7 |
| PP | 6 | 2 | 33,3 | 4 | 66,7 |
| EB-IU | 4 | 1 | 25,0 | 3 | 75,0 |
| ARALAR | 2 | 1 | 50,0 | 1 | 50,0 |
| GUZTIRA | 51 | 22 | 43,1 | 29 | 56,9 |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, oinarri honekin: Gipuzkoako Batzar Orokorretako web orrialdea <http://www.jjgg-gipuzkoa.org> (Kontsulta data: Azaroa 2008)

## UDALAK 1.3

Autonomia erregimena jarri eta egindako lehen hauteskundeetatik hona emakumeek geroz eta leku gehiago hartu dute udaletan. Halere, oro har, ikusi da bilakaera hori apalagoa izan dela beste erakunde maila batzuetan baino. Hala, 1979an guztira 170 hautatu zituzten zinegotzi EAEn, guztira %7. Azken udal hauteskundeetan, 2007 urtean, 906 emakumek hartu zuten zinegotzi kargua, orotara karguen %35.

**TAULA 1.14.** EAEko udaletan emakume zinegotzien kopuruak izan duen bilakaera. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 1979-2007.

| | 1979 | 1983 | 1987 | 1991 | 1995 | 1999 | 2003 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 2.428 | 2.452 | 2.505 | 2.539 | 2.262 | 2.540 | 2.511 | 2587 |
| Emakumeak | 170 | 201 | 295 | 407 | 512 | 690 | 713 | 906 |
| % emakumeak | 7,0 | 8,2 | 11,8 | 16,0 | 22,6 | 27,2 | 28,4 | 35 |

*Iturria*: Egileek prestatutakoa oinarritzat hau hartuta, Elizondo, Arantxa (1999): *La presencia de las mujeres en los partidos políticos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.* Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz; Eusko Legebiltzarreko Dokumentazio Zerbitzua. <http://www.parlamento.euskadi.net> eta eustat-eko web orrialdea <http://www.eustat.es> (Kontsulta data: Azaroa 2008)
*Oharra*: Datuak udalak osatu zirenekoak dira.

Bilakaera hau esplikatzeko faktoreen artean aipa daiteke estatu mailan onartutako berdintasunaren legea, erkidegoko legearen antzerako filosofia daukana. *Emakume eta Gizonen arteko Benetako Berdintasuna lortzeko Martxoaren 22ko 3/2007 Berdintasunaren Legeak* [2] gure lurraldean eragina du udal hauteskundeetan, Gorte Nagusietako eta Europako Parlamentuko hauteskundeetan. Lege horrek bere artikuluetan jasotzen dituen aginduek bermatu egiten dute sexu bietako pertsonen presentzia orekatua hautagaitzetan.

**GRAFIKOA 1.3.** Emakume eta Gizonen bilakaera EAEko Udaletan.




*Iturria*: Egileek prestatutakoa oinarritzat hau hartuta, Elizondo, Arantxa (1999): *La presencia de las mujeres en los partidos políticos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.* Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz; Eusko Legebiltzarreko Dokumentazio Zerbitzua. <http://www.parlamento.euskadi.net> eta eustat-eko web orrialdea <http://www.eustat.es> (Kontsulta data: Azaroa 2008)
*Oharra*: Datuak udalak osatu zirenekoak dira.

(2) Estatuko Buletin Ofiziala, 71 zka. (2007-3-23)

Berdintasunaren legeak eragin du noski, zerbait bada ere, Estatuan, izan ere emakume zinegotziek 7 puntu gehiago lortu dute portzentajean 2003 urtean baino. Hala ere, esan beharra dago, legea onartu zen arren, emakumeek ez dutela %40a iritsi. EAEren kasuan emakume zinegotziek 4 puntu gutxiago dauzkate estatuko batez bestekoa baino, eta hori harrigarri gertatzen da beste erakunde maila batzuetan lortutako presentzia ikusita.

**TAULA 1.15.** Emakume eta gizonezko zinegotzien bilakaera Estatuan. 2003-2007.

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % |
| 2003 | 6.475 | 32,3 | 13.554 | 67,7 |
| 2007 | 8.431 | 39,5 | 12.956 | 60,5 |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, Barne Ministerioko 2007ko Hauteskundeen Txostenean jasotako datuetatik abiatuta.

**GRAFIKOA 1.4.** EAE eta Estatuko Udalen osaera sexuaren arabera. 2007




*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, Barne Ministerioko *2007ko Hauteskundeen Txostenean* jasotako datuetatik abiatuta eta http://www.eustat.es begiratuta (Kontsulta data: Urria 2008)

Interesgarria da Barne Ministerioak egindako konparazio-azterlana, neurri bateko udalak aztertuta sailkapen bat egin du %40a gainditzen dutenen eta gainditzen ez dutenena. EAEk hamaikagarren postua dauka sailkapen horretan.

**TAULA 1.16.** Emakumeen portzentajea zinegotzi postuetan AAEEka. Zenbatespena. 2007.

| %40RA IRISTEN EZ DIREN AUTONOMIA ERKIDEGOAK | EMAKUMEAK % | %40RA IRISTEN DIREN AUTONOMIA ERKIDEGOAK | EMAKUMEAK % |
|---|---|---|---|
| Murtzia | 39,9 | Errioxa | 44,8 |
| Euskadiko Autonomia Erkidegoa | 39,6 | Madril | 43,2 |
| Gaztela-Leon | 39,6 | Balear Uharteak | 41,3 |
| Nafarroa | 39,4 | Gaztela-Mantxa | 40,7 |
| Asturias | 39,4 | Andaluzia | 40,6 |
| Kanariar Uharteak | 39,2 | E. Valentziarra | 40,6 |
| Galizia | 37,6 | Extremadura | 40,5 |
| Kantabria | 37,5 | Ceuta | 40,0 |
| Katalunia | 36,2 | Melilla | 40,0 |
| Aragoi | 35,6 | | |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, Barne Ministerioko *2007ko Hauteskundeen Txostenean* jasotako datuetatik abiatuta.

EAEn alderdiek guztira udaletan lortutako zinegotzi kopurua sexuaren arabera sailkatzen badugu alderik bada batetik bestera: EAE-ANVk %42,5 emakume eta EAk %28,2 emakume.

**TAULA 1.17.** Zinegotzi hautatutako pertsonak, sexuaren eta alderdi politikoaren arabera. 2007.

| ALDERDIA EDO HAUTAGAITZA | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | N | % | N | % |
| EAJ-PNV | 1.029 | 371 | 36,1 | 658 | 63,9 |
| PSE-EE | 332 | 127 | 38,3 | 205 | 61,7 |
| PP | 185 | 58 | 31,3 | 127 | 68,7 |
| EAE-ANV | 337 | 142 | 42,5 | 195 | 57,9 |
| EA | 216 | 61 | 28,2 | 155 | 71,8 |
| Beste batzuk | 488 | 147 | 30,1 | 341 | 69,9 |

*Iturria*. http://www.eustat.es (Kontsulta data: Urria 2008)
*Oharra*: Udalak osatu ziren garaikoak dira datuak.

Lurralde Historikoetako hiriburuetako udalak aztertuz gero ikusten da emakume gehiagoren presentzia dela joera. Donostian eta Bilbon parekotasuna hor da, Gasteizen, aldiz, emakumeak %37 dira. Bilakaerarik ikusgarriena Donostian gertatu da, emakumeen portzentajea 11 puntu baino gehiago igo da 2003ko emaitzekiko.

**TAULA 1.18.** Hiriburuetako udaletako osaeraren bilakaera sexuaren arabera. 2003-2007.

| | 2003 | | 2007 | |
|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK |
| Donostia | 29,6 | 70,4 | 48,1 | 51,9 |
| Bilbao | 34,5 | 65,5 | 41,4 | 58,6 |
| Gasteiz | 22,2 | 77,8 | 37,0 | 63,0 |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, Barne Ministerioko *2007ko Hauteskundeen Txostenean* jasotako datuetatik abiatuta.

## ORDEZKARITZA ESTATU MAILAN 1.4

EAEko hiritarrek beren ordezkariak hautatzen dituzte estatuko ganbera legegileetan ere, hots, Kongresuan eta Senatuan. Hauteskunde hauetan, hautagaitzen osaeran izan du zeresanik 3/2007 Lege Organikoak. Hala ere, ez dirudi xedapen horrek emakumeen presentzia handiagoa ekarri duenik EAEk estatuko erakundeetan daukan ordezkaritzan.

Azken hauteskundeetan, 2008an, parekotasuna aski urrun geratu da. Hala, Kongresuko 18 jarlekuetatik 3 bakarrik (%16,7) hartu dituzte emakumeek eta guztiak Alderdi Sozialistarenak dira. EAJ eta Alderdi Popularrak lortutako ordezkaritza gizonen eskuetan dago bere osoan.

**TAULA 1.19.** EAEn Kongresurako hautatutako pertsonak, alderdi politiko eta sexuaren arabera. 2008.

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| PSE-EE | 3 | 33,3 | 6 | 66,7 | 9 |
| EAJ-PNV | 0 | 0,0 | 6 | 100,0 | 6 |
| PP | 0 | 0,0 | 3 | 100,0 | 3 |
| EAE GUZTIRA | 3 | 16,7 | 15 | 83,3 | 18 |

*Iturria*: Eusko Jaurlaritzako Barne Saila <http:www.eustat.es> (Kontsulta data: Azaroa 2008)
*Oharra:* Ganbera osatu zen eguneko datuak dira.

Joerak irauten du Senatuan, EAEko ordezkaritzan jarlekuen %26,6 bakarrik da emakumeena. Parekotasun printzipioa errespetatzen duen lurralde historiko bakarra Gipuzkoa da; Bizkaiko eta Arabako jarlekuak eta erkidegoari dagozkionak gizonezkoek hartuta dauzkate %70 baino gehiago.

**TAULA 1.20.** Senaturako hautatutako pertsonak Lurralde Historikoko, sexuaren arabera. 2008.

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| Araba | 1 | 25 | 3 | 75 | 4 |
| Bizkaia | 1 | 25 | 3 | 75 | 4 |
| Gipuzkoa | 2 | 50 | 2 | 50 | 4 |
| A.E.ko izendatutak | 0 | 0 | 3 | 100 | 3 |
| GUZTIRA | 4 | 26,6 | 11 | 73,4 | 15 |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, Senatuko web orrialdeko datuak oinarri hartuta.
http://www.senado.es (Kontsulta data: Urria 2008)

# 2
# ERAKUNDE EXEKUTIBOAK

## EUSKO JAURLARITZA ETA FORU ALDUNDIAK 2.1

Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak III. tituluan dio: *"Botere publiko guztiek sustatu behar dute zuzendaritza organoak eta kide anitzeko organoak osatzeko pertsonak izendatu behar dituztenean, presentzia orekatua egotea gizon eta emakumeen artean, gaitasun, eskumen eta prestakuntza beharrezkoarekin. Horretarako, behar diren neurriak hartuko dituzte arauetan edo bestelakoetan"* (art. 23)

Eusko Jaurlaritzari dagokionez agindu hori gobernuko ekainaren 30eko 7/1981ko Legea aldatzen duen 3. Azken Xedapenean gauzatzen da: *"Gobernuan bi sexuak egongo dira ordezkatuta %40 gutxienez"*. Gaur egun Eusko Jaurlaritzako sailburuek betetzen dute agindu hori.

Sailburuordetza eta idazkaritza orokorretan gizonen presentzia %85etik gorakoa da. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako 113 zuzendaritzetatik 84 daude buru gizona dutenak, guztira %63,2.

**TAULA 2.1.** Goi karguak Eusko Jaurlaritzan, sexuaren arabera. 2008.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Sailburuak | 11 | 5 | 45,5 | 6 | 54,5 |
| Sailburuordetzak/Idazkaritza Orokorrak | 36 | 5 | 13,9 | 31 | 86,1 |
| Zuzendaritzak | 133 | 49 | 36,8 | 84 | 63,2 |
| **GUZTIRA** | **169** | **54** | **32,0** | **115** | **68,0** |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, hau oinarri hartuta: www.euskadi.net (Kontsulta data: Azaroa 2008).

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailean betetzen da Berdintasunaren legeak agindutakoa, gainerako sailetan urrun geratzen dira helburuak.

**TAULA 2.2.** Goi karguak Eusko Jaurlaritzan, sexuaren eta Sailaren arabera. 2008.

| | SAILBURUORDETZA/ IDAZK. OROK. | | ZUZENDARITZAK | | | GUZTIRA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | E | G | GUZTIRA | E | G | ABS. | %E | %G |
| Herrizaingo Saila | 1 | 1 | 13 | 4 | 9 | 12 | 16,7 | 83,3 |
| Kultura Saila | 0 | 2 | 9 | 2 | 7 | 11 | 18,2 | 81,8 |
| Jaurlaritzaren Lehendakaritza | 0 | 3 | 14 | 4 | 10 | 16 | 18,8 | 81,3 |
| Osasun Saila | 0 | 2 | 11 | 5 | 6 | 10 | 20,0 | 80,0 |
| Garraio eta Herri Lan Saila | 0 | 1 | 5 | 2 | 3 | 5 | 20,0 | 80,0 |
| Nekazaritza eta Arrantza Saila | 0 | 2 | 8 | 2 | 6 | 10 | 20,0 | 80,0 |
| Ogasuna eta Herri Administrazioa | 0 | 4 | 12 | 2 | 10 | 18 | 22,2 | 77,8 |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila | 0 | 3 | 10 | 4 | 6 | 12 | 25,0 | 75,0 |
| Industria, Merkataritza eta Turismo Saila | 1 | 3 | 13 | 5 | 8 | 15 | 26,7 | 73,3 |
| Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila | 1 | 3 | 13 | 5 | 8 | 15 | 26,7 | 73,3 |
| Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila | 1 | 3 | 11 | 5 | 6 | 13 | 30,8 | 69,2 |
| Jaurlaritzaren Lehendakariordetza | 0 | 3 | 8 | 5 | 3 | 9 | 33,3 | 66,7 |
| Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila | 1 | 1 | 6 | 4 | 2 | 5 | 40,0 | 60,0 |
| GUZTIRA % | **5** | **31** | **133** | **49** | **84** | **151** | **23,8** | **76,2** |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, sailetako web orrialdeak oinarri hartuta. (Kontsulta data: Azaroa 2008).

Alderatuz, ikus daiteke parekotasun printzipioa zenbat betetzen den sailak osatzerakoan, Estatua eratzen duten 17 Autonomia Erkidegoetatik 9tan. Horien artean dago Euskadi. Erkidegoetako gobernuen osaera aldatu egin da dezente 2001 urtetik hona. Orduan hiru AAEE bakarrik zeuden %30 baino gehiago zutenak sailburua emakumezkoa, eta horien artean ez zegoen Euskadi. Andaluzia, Gaztela-Mantxa eta Balear Uharteak ziren bakarrak portzentaje hori gainditzen.

**TAULA 2.3.** Emakume portzentajearen bilakaera, Autonomia Gobernuetako Sailetan. 2001-2007.

| AAEE | 2001 | 2003 | 2007 |
|---|---|---|---|
| Extremadura | 30,0 | 27,3 | 61,5 |
| Andaluzia | 42,9 | 42,9 | 57,1 |
| Asturias | 27,3 | 18,2 | 50,0 |
| Gaztela-Mantxa | 40,0 | 30,0 | 50,0 |
| Euskadi | 20,0 | 27,3 | 50,0 |
| Gaztela-Leon | 25,0 | 25,0 | 46,2 |
| Kanariar uharteak | 0,0 | 0,0 | 45,5 |
| Balear uharteak | 30,8 | 23,1 | 42,9 |
| Galizia | 14,3 | 14,3 | 40,0 |
| Aragoi | 12,5 | 11,1 | 36,4 |
| Nafarroa | 10,0 | 11,1 | 35,7 |
| Madril | 22,2 | 27,3 | 35,3 |
| Kantabria | 11,1 | 11,1 | 30,0 |
| Errioxa | 14,3 | 14,3 | 27,3 |
| Katalunia | 20,0 | 18,8 | 26,7 |
| E. Valentziarra. | 20,0 | 20,0 | 26,7 |
| Murtzia | 0,0 | 11,1 | 25,0 |

*Iturria*: Emakumearen Institutua.

Hala ere, eusko gobernuaren osaera parekoaren antz gutxi dute Europar Batasuneko herrialde askok. Hala, estatuz gaineko erakunde horretan hiru dira bakarrik parekotasun printzipioa betetzen dutenak. Finlandia, Espainia eta Suedia. Azkenak, aldiz, emakumeen presentzia %10 baino gutxiago izanik, Zipre, Eslovenia, Eslovakia eta Lituania dira.

**TAULA 2.4.** Emakumeak Europar Batasuneko gobernuetan. 2006.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Finlandia | 18 | 9 | 50,0 | 9 | 50,0 |
| Espainia | 17 | 8 | 47,1 | 9 | 52,9 |
| Suedia | 22 | 10 | 45,5 | 12 | 54,5 |
| Alemania | 16 | 6 | 37,5 | 10 | 62,5 |
| Austria | 19 | 6 | 31,6 | 13 | 68,4 |
| Letonia | 19 | 6 | 31,6 | 13 | 68,4 |
| Herri Behereak | 17 | 5 | 29,4 | 12 | 70,6 |
| Kroazia | 15 | 4 | 26,7 | 11 | 73,3 |
| Dinamarka | 19 | 5 | 26,3 | 14 | 73,7 |
| Erresuma Batua | 27 | 7 | 25,9 | 20 | 74,1 |
| Italia | 29 | 7 | 24,1 | 22 | 75,9 |
| Belgika | 21 | 5 | 23,8 | 16 | 76,2 |
| Luxemburgo | 15 | 3 | 20,0 | 12 | 80,0 |
| Frantzia | 32 | 6 | 18,8 | 26 | 81,3 |
| Errumania | 16 | 3 | 18,8 | 13 | 81,3 |
| Polonia | 22 | 4 | 18,2 | 18 | 81,8 |
| Irlanda | 17 | 3 | 17,6 | 14 | 82,4 |
| Malta | 18 | 3 | 16,7 | 15 | 83,3 |
| Grezia | 20 | 3 | 15,0 | 17 | 85,0 |
| Estonia | 14 | 2 | 14,3 | 12 | 85,7 |
| Portugal | 17 | 2 | 11,8 | 15 | 88,2 |
| Hungria | 18 | 2 | 11,1 | 16 | 88,9 |
| Txekiar Errepublika | 18 | 2 | 11,1 | 16 | 88,9 |
| Lituania | 13 | 1 | 7,7 | 12 | 92,3 |
| Eslovakia | 16 | 1 | 6,3 | 15 | 93,8 |
| Eslovenia | 17 | 1 | 5,9 | 16 | 94,1 |
| Zipre | 12 | 0 | 0,0 | 12 | 100,0 |
| GUZTIRA | 504 | 114 | 22,6 | 390 | 77,4 |

*Iturria*: Emakumearen Institutua.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Foru Aldundietan parekotasun printzipioa betetzen da Ahaldun emakumeak eta Ahaldun gizonezkoak batuta, baina ez erakundea bere osoan hartuta, izan ere, Ahaldun Nagusia ere kontuan hartzen bada emakumeen presentzia %36,3 da. Ahaldun emakumeen kopurua berdina da hiru Foru Aldundietan, horrez gain esan behar da Kulturako departamentuak emakumeen esku daudela. Horietako bitan dauzkate Gizarte Politikako departamentua (AFA eta GFA), Nekazaritza (AFA eta BFA) eta Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko departamentua (AFA eta BFA).

**TAULA 2.5.** Foru Gobernuen osaera sexuaren arabera. 2008.

| | FORU DIPUTATUA | | FORU DIPUTATUAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | E | G | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
| | ABS. | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Araba | 0 | 1 | 4 | 40,0 | 6 | 60,0 |
| Bizkaia | 0 | 1 | 4 | 40,0 | 6 | 60,0 |
| Gipuzkoa | 0 | 1 | 4 | 40,0 | 6 | 60,0 |

*Iturria*: FFAAetako web orriak eta BAO. (Kontsulta data: Azaroa 2008)

## EUSKO JAURLARITZAKO ERAKUNDE ETA ENTITATE PUBLIKOAK ETA FORU ALDUNDIETAKOAK 2.2

Gaurko egunean exekutibo guztiek dauzkate, administrazio orokorraz gain, erakunde autonomoak eta entitate publikoak departamentuen menpe. Entitate eta erakunde horietan buru daudenak ere politikoek izendatzen dituzte. Eusko Jaurlaritzak sei Erakunde Autonomo dauzka, horietako bi emakumeek zuzentzen dituzte: Emakunde eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia.

**TAULA 2.6.** Erakunde autonomoen Zuzendaritza edo Presidentzia. 2008.

| | ARDURADUNA |
|---|---|
| Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia | Emakumea |
| Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea | Emakumea |
| IVAP-HAEE Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea | Gizona |
| HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea | Gizona |
| EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundea | Gizona |
| Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea | Gizona |
| GUZTIRA | 2 emakume (33,3%)<br>4 gizon (66,7%) |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, oinarri honekin: www.euskadi.net. (Kontsulta data: Azaroa 2008)

Eusko Jaurlaritzaren menpeko Entitate Publikoak mundu konplexua osatzen dute. Erakunde Autonomoekin gertatzen den bezala entitate publikorik gehienak, -arduradunaren

sexua ezagutzen den horietan-, gizonezkoek zuzentzen dituzte. Hala, Basquetour, Uniqual, Egailan, Osakidetza, Osatek eta Euskadi Irratia izan ezik, guztiak daude gizonen zuzendaritzapean. Aipatzekoa da ez dagoela emakumerik industria edo parke teknologikoekin lotura duten entitateetan.

**TAULA 2.7.** Eusko Jaurlaritzako Entitate Publikoak, arduradunaren sexuaren arabera. 2008.

| | ARDURADUNA |
|---|---|
| Basquetour | Emakumea |
| Uniqual | Emakumea |
| Egailan | Emakumea |
| Osakidetza | Emakumea |
| OSATEK | Emakumea |
| Euskal Irrati Telebista: | Gizona |
| Euskadi Irratia | Emakumea |
| Euskal Telebista | Gizona |
| Radio Vitoria | Gizona |
| EITBNET | Gizona |
| EJIE | Gizona |
| Itelazpi | Gizona |
| EVE-EEE Energiaren Euskal Erakundea | Gizona |
| SPRI | Gizona |
| Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea | Gizona |
| Parke Tekonologikoa, Miramón | Gizona |
| Parke Teknologikoa, Zamudio | Gizona |
| Parke Teknologikoa, Miñao | Gizona |
| Parke Teknologikoa, Arrasate | Gizona |
| Arrisku-kapitalaren Gestioa Euskadin. | Gizona |
| SPRILUR | Gizona |
| VISESA | Gizona |
| Euskadiko orkestra | Gizona |
| IHOBE | Gizona |
| URA-Uraren Euskal Agentzia | Gizona |
| Eusko Trenbideak | Gizona |
| EKP-Euskadiko Kirol Portuak | Gizona |
| Euskal Trenbide Sarea | Gizona |
| Neiker | Gizona |
| Itsasmendikoi | Gizona |
| GUZTIRA | 6 emakume (20%)<br>24 gizon (80%) |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa. Arduradunaren berri dakigun entitateak bakarrik.

Arabako Foru Aldundiaren menpean dauden aztertutako hamar entitatetatik lau emakumeek zuzentzen dituzte eta sei gizonek. Gazteriaren Foru Erakundea, Arabako Kalkulu Zentroa, Uraren Agentzia eta Garapen Agentzia emakume baten ardura nagusipean daude.

**TAULA 2.8.** Arabako Foru Aldundiko Erakunde Publikoak, arduradunaren sexuaren arabera. 2008.

| | ARDURADUNA |
|---|---|
| Gazteriaren Foru Erakundea | Emakumea |
| CCASA-Arabako Kalkulu Zentroa | Emakumea |
| Uraren Agentzia | Emakumea |
| Garapen Agentzia | Emakumea |
| Arabako Lanak | Gizona |
| Arabarri | Gizona |
| Buesa Arena | Gizona |
| Natur Golf | Gizona |
| Arabako bideak | Gizona |
| Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea | Gizona |
| GUZTIRA | 4 emakume (%40)<br>6 gizon (%60) |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, oinarri honekin: www.alava.net. (Kontsulta data: Azaroa 2008)

Bizkaiko Foru Aldundiko entitate publikoen zuzendaritzan, aztertutako 19 entitate publikoen artetik bi bakarrik daude emakumeek zuzenduta, Errekaldeko Erakusketa Aretoa, eta Estatuko Loteria eta Apustuko Erakunde ordezkaritzako Foru Erakunde Autonomoa. Bizkaiko foru entitate publikoen %10 zuzentzen dute emakumeek.

**TAULA 2.9.** Bizkaiko Foru Aldundiko Entitate Publikoak, arduradunaren sexuaren arabera. 2008.

| | ARDURADUNA |
|---|---|
| Rekalde Erakusketa Aretoa | Emakumea |
| Foru Erakunde Autonomoa, LAE Ordezkaritzakoa | Emakumea |
| Bikakobo-Bizkaiko Kamioe Kokaleku Bortxatuak | Gizona |
| Azpiegitura A.B. | Gizona |
| BAI-berrikuntza agentzia | Gizona |
| Basalan | Gizona |
| BEAZ-Enpresa eta Aurrerapen Zentroa | Gizona |
| Bizkaiko Bideak | Gizona |
| Bizkailur | Gizona |
| CEDEMI-Ezkerraldeko Enpresak Garatzeko Zentroa | Gizona |
| Garbiker | Gizona |
| Bizkaiko Lurralde Azterlanetarako Erakundea | Gizona |
| GUFE- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea | Gizona |
| Bizkaiko Tutoretza Erakundea | Gizona |
| Interbiak | Gizona |
| Kirolgintzan | Gizona |
| Lantik | Gizona |
| Euskalduna Jauregia | Gizona |
| SEED Bizkaiko Kapitala, Arrisku-Kapital Funtsen Sozietate Kudeatzailea | Gizona |
| GUZTIRA | 2 emakume (%10,5)<br>17 gizon (%89,5) |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, oinarri honekin: www.bizkaia.net (Kontsulta data: Azaroa 2008)

Gipuzkoako Foru Aldundiko kasuan, hiru entitate daude eta bakar bat ez dago emakumezkoak zuzenduta.

**TAULA 2.10.** **Gipuzkoako Foru Aldundiko Entitate Publikoak, arduradunaren sexuaren arabera. 2008.**

| | ARDURADUNA |
|---|---|
| IZFE | Gizona |
| Bidegi | Gizona |
| Etorlur Gipuzkoako Lurra | Gizona |
| GUZTIRA | 0 emakume<br>%100 gizonak |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, oinarri honekin: www.gipuzkoa.net (Kontsulta data: Azaroa 2008)

## EUSKO JAURLARITZARI ATXIKITAKO KIDE ANITZEKO ORGANOAK 2.3

Oraingo gobernuek erabakitzeko prozesuan sartzen dituzte osaera mistoko organoak, sail ezberdinetako interes eta ikuspegiak sartzen dituzte gobernu talde horietan (sail arteko organoak) eta baita gobernuko lurralde maila batzuetakoak ere (erakunde arteko organoak) eta baita gai batean aditu direnen ikuspegia edo jasaile diren eragile sozialena ere. Organo hauei emandako betekizunak ezberdinak dira, oro har izaten dira gai zehatz baten inguruan garatzen diren politiken kontsulta, aholkularitza, koordinazio, lankidetza eta ebaluazioa egiteko organoak.

Organo hauen arautzeak osaera orokor bat ezartzen du, eta ez du jasotzen izenez zeintzuk diren partaideak, horrek zaildu egiten du sexuaren araberako osaeraren analisia. Horregatik, organo hauetan parekotasun printzipioa ez betetzea ezin zaie organo horiei egotzi, zeren askotan arlo konkretu bateko arduradun kargua hartzen baita kontuan. Beraz, kargu hauek izendatzean egindako aldaketak izango lirateke parekotasun handiagoa emango luketenak, baina kasu batzuetan pertsonen izendapena nominala da eta horregatik printzipio hau betetzeko erantzukizuna atxikita dagoen sailaren araberakoa izango da. Informazioa EHAAtik atera dugu eta Eusko Jaurlaritzako sailek txosten honen ardura duen Genero Ikasketen Taldearen galderei erantzundakotik.

Eusko Jaurlaritzako *Lehendakariordetzak* Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa du. Gizonezko bat buru duen organo horrek parekotasunaren printzipioa betetzen du, osatzen

duten pertsonen %40 emakumezkoa izaki. Ogasun eta Herri Administrazio Sailari dagokionez, bere 9 organoetatik 2tan emakumezkoak %40 baino gehiago dira.

*Herrizaingo* Sailaren kasuan, zenbait organotan ez dago emakumezkorik, hala nola Ertzaintza Kontseiluan eta EAEko hiru hiriburuetako Toki-mailako koordinazio-batzordeetan; Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordean eta Segurtasunerako Euskal Batzordean, gizonezkoen proportzioa % 90etik gorakoa da. Babes Zibilerako Batzordeak, Indarkeriak Kaltetuentzako Laguntza Egitarauaren Batzorde Tekniko Ebaluatzaileak edota Bideo-zaintza eta Askatasunen Batzordeak, ordea, parekotasunaren printzipioa betetzen dute.

*Etxebizitza eta Gizarte Gaietako* Sailari dagokionez, kontseilaritza horren menpeko hamabost kide anitzeko organoetatik seik bakarrik betetzen dute parekotasunaren printzipioa; Gizarte Ongizateko Aholku Kontseilua, Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua, Droga Mendekotasunen Aholku Kontseilua eta bere bi batzorde —Laguntza eta Prebentzio Batzordeak—, eta Euskadiko Garapen Lankidetzarako Ahoku Batzordea dira. Horiez gain, beste bi batzordek gutxigatik ez dute parekotasunaren printzipioa betetzen: Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak eta Euskadiko Immigranteen Gizarteratzeko eta Gizarte Parte-hartzerako Foroak, hain zuzen. Parekotasun printzipioa betetzen ez duten Batzorde eta Kontseiluen artean, bakarra da emakumeen ordezkaritza gehiegizkoa daukana, Nazioarteko Adopzioko Batzorde Teknikoa, alegia.

*Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa* Sailaren menpeko kide anitzeko organoetan, guztietan daude gizon gehiegi; nabarmentzekoak dira, batez ere, Lanbide Heziketarako Euskal Kontseilua eta Euskadiko Unibertsitate Kontseilua, non %90 gizonezkoa baita.

*Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza* Saila osatzen duten hamaika kontseiluen, batzordeen eta abarren osaera aztertu eta gero, emaitza hauek jaso dira: lau kide anitzeko organok parekotasun printzipioa betetzen dute; Familia Erakundeen Batzordea, Gizarteratzeko Erakunde Arteko Batzordea, Gizarteratzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala eta Justizia Administrazioa Informatizatzeko Planaren Jarraipenerako Bitariko Batzordea dira, hain zuzen. Osalanen Kontseiluak, %37,5ekin, gutxigatik ez du helburua betetzen. Beste bi kasutan, emakume gehiegi dagoelako ez da parekotasunaren printzipioa betetzen; Familiako Kontseilu Sektore Iraunkorrean (%73) eta Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadira destinatuta dagoen Idazkaritza Judizialaren arteko Lankidetza Organoan (%71,4), hain zuzen. Beste bi kasutan, berriz, gizon gehiegi egoteagatik ez da helburua betetzen; Gizarteratzeko Sail Arteko Batzordean (%91) eta Herri Lanetarako Erakunde Arteko Batzordea dira.

*Kultura* Sailaren menpeko organoei dagokinez, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, EAEko Gazte Planaren Zuzendaritzak eta Agiriak Balioetsi eta Hautatzeko Batzordeak parekotasunaren printzipioa betetzen dute. Gainerakoek, Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordeak eta Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordeak izan ezik, helburua oso gertu dute; izan ere, haien osaeran emakumezkoak %35,3 eta %38,5 bitartean daude.

*Ingurumena eta Lurralde Antolamendu* Sailaren menpeko kide anitzeko organoetan, bat parekotasun printzipioa betetzetik gertu dago; hau da, Euskadiko Ingurumeneko Aholku Kontseilua, bere osaeran %35,5 emakumezkoak direla.

*Garraio eta Herri Lan* Sailaren menpeko kide anitzetako bi organok oso bestelako egoerak dituzte. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren Batzordeak badu parekotasuna (% 57,1 emakumezkoak); Meteorologiako Euskal Batzordean, aldiz, bere hiru kideak gizonezkoak dira.

Azkenik, *Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura* Sailak parekotasun printzipioa bete du Landaberri-Nekazal Garapenerako Aholku Kontseiluan eta Euskadiko Animalien Elikadurarako Batzordean. Gainerako batzorde eta kontseiluetan emakumeen presentzia %30 baino gutxiagokoa da; deigarriena, dena den, Pestizidei buruzko Araudia Garatu eta Aplikatzeko Batzorde Teknikoaren kasua da, emakumeak %16 baitira.

**TAULA 2.11.** Kide anitzeko organoak, sailaren eta sexuaren arabera. Osaera eta presidentzia sexuaren arabera. 2008.

| | GUZ. | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | PR. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | |
| LEHENDAKARIORDETZA | | | | | | |
| Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa | 10 | 4 | 40,0 | 6 | 60,0 | G |
| OGASUNA ETA HERRI ADMINISTRAZIOA | | | | | | |
| Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua | 18 | 6 | 33,3 | 12 | 66,7 | |
| Euskal Estatistika Kontseilua | 47 | 8 | 17,0 | 39 | 83,0 | E |
| Euskal Estatistika Batzordea | 16 | 4 | 25,0 | 12 | 75,0 | E |
| EAE Administrazioan bere zerbitzuak egin zituzten Langileen Lanbide eta Gozamen Eskubideak aplikatzeko Batzordea | 9 | 3 | 33,3 | 6 | 66,6 | G |
| Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioko Dokumentazioaren Balioespen, Hautapen eta Sarbide Batzordea | 8 | 4 | 50,0 | 4 | 50,0 | G |
| EAEko Administrazio Orokorreko eta horren erakunde autonomoetako lanpostuak Balioesteko Batzordea | 9 | 2 | 22,2 | 7 | 77,8 | G |
| Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordea | 17 | 8 | 47,0 | 9 | 53,0 | G |
| Zerga-Kideketarako Saila | 11 | 2 | 18,2 | 9 | 81,8 | (*) |
| Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia | 3 | 0 | -- | 3 | 100,0 | G |

**TAULA 2.11.** Kide anitzeko organoak, sailaren eta sexuaren arabera. Osaera eta presidentzia sexuaren arabera. 2008. (jarraipena)

| | GUZ. | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | PR. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | |
| **HERRIZAINGOA** | | | | | | |
| Jendaurreko Ikuskizunetarako eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseilua | 15 | 6 | 40,0 | 9 | 60,0 | E |
| Jokoaren Euskal Kontseilua | 12 | 4 | 33,3 | 8 | 66,7 | E |
| Euskadiko Babes Zibileko Batzordea | 19 | 8 | 42,1 | 11 | 57,9 | E |
| "Indarkeriak Kaltetutakoentzako Laguntza Egitaraua"ren Batzorde Tekniko Ebaluatzailea | 10 | 4 | 40,0 | 6 | 60,0 | E |
| Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea | 13 | 1 | 7,7 | 12 | 92,3 | G |
| Bideo-zaintza eta Askatasunaren Batzordea | 7 | 3 | 42,9 | 4 | 57,1 | G |
| Ertzaintzaren Kontseilua | 11 | 0 | 0,0 | 11 | 100,0 | G |
| Segurtasunerako Euskal Batzordea | 12 | 1 | 8,3 | 11 | 91,7 | G |
| Toki-mailako koordinazio batzordeak: | | | | | | |
| - Bilboko Batzordea | 7 | 0 | 0,0 | 7 | 100,0 | G |
| - Donostiako Batzordea | 7 | 0 | 0,0 | 7 | 100,0 | G |
| - Gasteizko Batzordea | 7 | 0 | 0,0 | 7 | 100,0 | G |
| EAEko Bide Segurtasuneko Batzordea | 28 | 6 | 21,4 | 22 | 78,6 | G |
| **ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIAK** | | | | | | |
| Eraikuntzaren kalitatea Kontrolatzeko Batzordea (2003) | 26 | 5 | 19,2 | 21 | 80,8 | E |
| Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua (2008) | 28 | 11 | 39,3 | 17 | 60,7 | G |
| Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua | 41 | 21 | 51,2 | 20 | 48,8 | G |
| Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza Sozialerako Kontseilua | 32 | 13 | 40,6 | 19 | 59,4 | G |
| Euskadiko immigranteen Gizarteratzeko eta Gizarte Parte-hartzerako Foroa | 40 | 15 | 37,5 | 25 | 62,5 | G |
| Nazioarteko Adopzioko Batzorde Teknikoa | 5 | 4 | 80,0 | 1 | 20,0 | |
| Boluntariotzaren Euskal Kontseilua | 26 | 9 | 34,6 | 17 | 65,4 | G |
| Droga Mendekotasunen Sailarteko Batzordea (2004) | 7 | 1 | 14,3 | 6 | 85,7 | G |
| Droga Mendekotasunen Aholku Kontseilua (2004) | 43 | 18 | 41,9 | 25 | 58,1 | E |
| - Laguntza Batzordea | 14 | 6 | 42,9 | 8 | 57,1 | |
| - Prebentzio Batzordea (2003) | 12 | 6 | 50,0 | 6 | 50,0 | |
| - Gizarteratze Batzordea (2004) | 12 | 4 | 33,3 | 8 | 66,7 | |
| - Batzorde juridiko penitentziarioa | 15 | 5 | 33,3 | 10 | 66,7 | |
| Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordea | 32 | 17 | 53,1 | 15 | 46,9 | G |
| FOCADeko Batzorde Kudeatzailea | 11 | 2 | 18,2 | 9 | 81,8 | |
| **HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEAK ETA IKERKETA** | | | | | | |
| Euskadiko Eskola Kontseilua | 46 | 13 | 28,3 | 33 | 71,7 | G |
| Lanbide Heziketarako Euskal Kontseilua | 19 | 1 | 5,3 | 18 | 94,7 | G |
| Musika Irakaskuntzen Aholku Batzordea | 10 | 3 | 30,0 | 7 | 70,0 | G |
| Unibertsitateen Eskola Kontseilua | 20 | 2 | 10,0 | 18 | 90,0 | G |
| Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua | 13 | 2 | 15,4 | 11 | 84,6 | G |

**TAULA 2.11.** Kide anitzeko organoak, sailaren eta sexuaren arabera. Osaera eta presidentzia sexuaren arabera. 2008. (jarraipena)

| | GUZ, | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | PR. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | |
| JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA | | | | | | |
| Familia Erakundeen Batzordea | 17 | 10 | 58,8 | 7 | 41,2 | G |
| Familiaren Batzorde Iraunkor Sektoriala | 19 | 14 | 73,7 | 5 | 26,3 | G |
| Gizarteratzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala | 12 | 5 | 41,7 | 7 | 58,3 | G |
| Gizarteratzeko Sailarteko Batzordea | 12 | 1 | 8,3 | 11 | 91,7 | G |
| Gizarteratzeko Batzorde Iraunkor Sektoriala | 34 | 20 | 58,8 | 14 | 41,2 | G |
| Justizia Administrazioa Informatizatzeko Planaren Jarraipenerako Bitariko Batzordea. | 9 | 4 | 44,4 | 5 | 55,6 | G |
| Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadira destinatuta dagoen Idazkaritza Judizialaren arteko Lankidetza Organoa (representación estable de total de 10) | 7 | 5 | 71,4 | 2 | 28,6 | G |
| Auzitegiko Medikuntzako Eusk Erak Zuzendaritza Batzordea | 14 | 3 | 21,4 | 11 | 78,6 | G |
| Justizia Administrazioaren Euskal Behatokia | 23 | 6 | 26,0 | 17 | 74,0 | G |
| Herri Lanetarako Sailarteko Batzordea | 12 | 1 | 8,3 | 11 | 91,7 | G |
| Osalanen Kontseilua | 16 | 6 | 37,5 | 10 | 62,5 | G |
| KULTURA | | | | | | |
| Kirolaren Euskal Kontseilua | 34 | 12 | 35,3 | 22 | 64,7 | E |
| Unibertsitateko Kirolaren Euskal Kontseilua | 13 | 5 | 38,5 | 8 | 61,5 | E |
| Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea | 14 | 4 | 28,6 | 10 | 71,4 | E |
| Kirol Justiziako Euskal Batzordea | 6 | 3 | 50,0 | 3 | 50,0 | |
| Kulturaren Euskal Kontseilua | 28 | 10 | 35,7 | 18 | 64,3 | |
| Euskararen Aholku-Batzordea | 55 | 21 | 38,2 | 34 | 61,8 | G |
| Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordea | 8 | 1 | 12,5 | 7 | 87,5 | |
| Euskadiko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea | 26 | 11 | 42,3 | 15 | 57,7 | E |
| Euskal Ikus-entzunezkoen Erakunde arteko Batzordea (EIEB) | 13 | 5 | 38,5 | 8 | 61,5 | E |
| Dokumentazioaren Balioespen, Hautapen eta Sarbide Batzordea | 7 | 3 | 42,9 | 4 | 57,1 | E |
| INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA | | | | | | |
| Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordea | 24 | 4 | 16,7 | 20 | 83,3 | E |
| Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Politikarako Aholku Batzordea | 26 | 5 | 19,2 | 21 | 80,8 | E |
| EAEko Ingurumen Batzordea | 18 | 5 | 27,8 | 13 | 72,2 | E |
| Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumenerako Aholku Batzordea | 31 | 11 | 35,5 | 20 | 64,5 | E |
| Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lankidetza Kontseilua | | | | | | |
| Batzorde Iraunkorra | 9 | 3 | 33,3 | 6 | 66,7 | |
| Lankidetza Kontseilua | 15 | 4 | 26,7 | 11 | 73,3 | |
| Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lankidetza Kontseilua | 23 | 6 | 26,1 | 17 | 73,9 | |
| Naturzaintza. Euskal Herriko Natura Zaintzeko Aholku Batzordea | 17 | 3 | 17,6 | 14 | 82,4 | E |
| Uraren Euskal Agentziaren Erabiltzaileen Batzarra | 20 | 3 | 15,0 | 17 | 85,0 | E |
| Uraren Euskal Agentziaren Administrazio Kontseilua | 20 | 3 | 15,0 | 17 | 85,0 | E |
| Euskadiko Uraren Kontseilua | 33 | 7 | 21,2 | 23 | 69,7 | E |

**TAULA 2.11.** Kide anitzeko organoak, sailaren eta sexuaren arabera. Osaera eta presidentzia sexuaren arabera. 2008. (jarraipena)

| | GUZ. | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | PR. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | |
| GARRAIO ETA HERRI LANAK | | | | | | |
| Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren Batzordea | 7 | 4 | 57,1 | 3 | 42,9 | E |
| Meteorologiako Euskal Batzordea | 3 | 0 | 0,0 | 3 | 100,0 | H |
| NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA | | | | | | |
| Euskadiko Ekoizpen Integraturako Koordinazio Batzordea | 11 | 3 | 27,3 | 8 | 72,7 | E |
| Nekazaritza eta Elikadura Politikarako Batzordea | 19 | 4 | 21,1 | 15 | 78,9 | G |
| Arratza Politikarako Batzordea | 15 | 4 | 26,7 | 11 | 73,3 | G |
| Pestiziden Araudia Garatu eta Aplikatzeko Batzorde Teknikoa | 6 | 1 | 16,7 | 5 | 83,3 | G |
| Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseilua | 14 | 4 | 28,6 | 10 | 71,4 | G |
| Landaberri- Nekazaritza Garapenerako Aholku Kontseilua | 10 | 5 | 50,0 | 5 | 50,0 | G |
| Euskadiko Animalien Elikadurarako Batzordea | 7 | 3 | 42,9 | 4 | 57,1 | G |
| Nekazaritzako Aholku Mahai Nazionala | 23 | 5 | 21,7 | 18 | 78,3 | G |

*Iturria*: Eusko Jaurlaritzako Sailak eta EHAA. Urria-Azaroa 2008.

(*) Ez du presidentziarik

Kontzertazio sozialeko tresna nagusiei begira, esan dezagun emakumeak gutxiago agertzen direla gizonak baino. Lan Harremanen Kontseilua 17 lagunek osatzen dute, horietako 5 emakumeak dira; Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan 34 kideetatik 6 bakarrik dira emakumeak, hau da, %17,6.

**TAULA 2.12.** Kontzertazio sozial eta ekonomikoko organoak. Osaera eta presidentzia. 2008.

| | GUZ | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | PR. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | |
| Lan Harremanen Kontseilua | 17 | 5 | 29,4 | 12 | 70,6 | G |
| Ekonomia eta Gizarte Kontseilua | 34 | 6 | 17,6 | 28 | 82,4 | G |

*Iturria*: Erakundeen web orrialdeak. (Kontsulta data Azaroa 2008).

*Oharra*: Pr. = Organoko presidentzia G= Gizona E= Emakumea

## ALKATETZAK

# 2.4

Aurreko atalean esan dugunez, hauteskundeetarako hautagai-zerrendetan berdintasuna arautzen duten legeak onartzeak eragina izan du, ez bakarrik Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan eta Hauteskunde Orokorretan, baita Udal Hauteskundeetan ere. Hala ere, hauteskundeetatik hasi (berdintasun legeak eragin zuzena du) eta zinegotziak aukeratzera eta azkenik udalburua hautatzera, hau da, alkatea edo alkatesa hautatzera, emakumeen presentziak behera egiten du. Hala, 2007ko udal hauteskundeen ondoren, udalen %19,9 bakarrik zeuden emakume udalburuarekin. Euskal populazioaren %11,5 bakarrik bizi da alkatesa batek gobernaturiko udalerrian. Lurralde historikoen artean ez dago alde handiegirik alkatesa duten udalerrien portzentajean, baina badago alderik herri hauen biztanle kopuruan; Araba eta Gipuzkoan %19,6 eta %21,3 da hurrenez hurren, Bizkaian ez da %8ra iristen.

**TAULA 2.13.** Biztanleak eta Udalak, alkatesak gobernatzen dituztenak. 2007.

| | UDALAK | | BIZTANLEAK | |
|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % |
| EAE | 50 | 19,9 | 244.593 | 11,5 |
| Araba | 10 | 19,6 | 9.659 | 19,6 |
| Bizkaia | 18 | 20,0 | 88.590 | 7,8 |
| Gipuzkoa | 22 | 21,3 | 146.344 | 21,3 |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, EUDELen datuak oinarri hartuta.

Emakumeek gobernatutako herriak txikiak dira gehien-gehienetan. Hiru euskal hiriburuetako bakar batek ere ez du izan alkatesarik eta ez dauka 2007ko hauteskundeen ondoren. EUSTATen arabera Euskadiko 10 herririk handienak diren horietan (Bilbo, Vitoria-Gasteiz, Barakaldo, Getxo, Irun, Portugalete, Santurtzi, Basauri eta Errenteria) Basauri da bakarra alkatesa duena. Hala, esanguratsua da alkatesa duten 1000 biztanletik beherako udalen kopurua. 2007 urtean hautatutako 50 alkatesetatik 21ek 1000 biztanletik beherako herria gobernatzen du, 10etik 6 Araban, 18tik 7 Bizkaian eta 22tik 8 Gipuzkoan.

**TAULA 2.14.** Alkatesa duten Udalak, Lurralde Historikoaren eta biztanleen arabera. 2007.

| ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|
| IZENA | BIZTANLEAK | IZENA | BIZTANLEAK | IZENA | BIZTANLEAK |
| Artziniega | 1.499 | Arantzazu | 289 | Aduna | 352 |
| Ayala/Aiara | 2.542 | Arrieta | 529 | Aizarnazabal | 629 |
| Berantevilla | 458 | Basauri | 44.052 | Arama | 164 |
| Bernedo | 566 | Berango | 5.904 | Arrasate | 22.611 |
| Elburgo/Burgelu | 475 | Elantxobe | 456 | Belauntza | 289 |
| Laguardia | 1.483 | Gamiz-Fika | 1.264 | Bergara | 14.879 |
| Moreda de Araba | 280 | Gautegiz Arteaga | 869 | Gabiria | 420 |
| Peñacerrada/Urizaharra | 257 | Gizaburuaga | 147 | Hernani | 18.827 |
| San millan/Donemiliaga | 721 | Gorliz | 4.882 | Hernialde | 326 |
| Zigoitia | 1.378 | Izurtza | 253 | Ibarra | 4.306 |
| | 9.659 | Lezama | 2.287 | Ikaztegieta | 394 |
| | | Mungia | 14.882 | Lasarte-Oria | 17.646 |
| | | Nabarniz | 229 | Lizartza | 613 |
| | | Plentzia | 3.949 | Mendaro | 1.679 |
| | | Ubide | 159 | Oñati | 10.711 |
| | | Ugao-Miraballes | 4.060 | Pasaia | 16.116 |
| | | Zamudio | 3.176 | Segura | 1230 |
| | | Zeanuri | 1.203 | Villabona | 5.745 |
| | | | | Zarautz | 22.056 |
| | | | | Zegama | 1.303 |
| | | | | Zestoa | 3.220 |
| | | | | Zizurkil | 2.828 |

*Iturria*: Eudel.

Beste datu garrantzizko bat da alkatesa horiek zein alderditakoak diren jakitea. EAEko alkatesa gehienak EAJ, EAE-ANV eta hautagaitza independenteetakoak dira. Arabako herrietan, ia alkatesa guztiak EAJkoak dira, salbu eta bi alkatesa independente (Zigoitia eta Peñaferrada) eta sozialista bat Arabako Moredan. Bizkaiko alkatesarik gehienak EAJkoak dira, %60 baino gehiago. Alderdi Sozialistak alkatesa bakarra dauka Lurralde Historiko honetan, baina udalburua emakumea duen udalik handiena gobernatzen du. Azkenik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, EAE-ANV eta hautagaitza independenteak dira alkatesa gehien dauzkatenak, 22tik 15.

**TAULA 2.15.** Alkatesak alderdi politikoaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2007.

| | EAE | | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| EAJ-PNV | 22 | 44,0 | 7 | 70 | 11 | 61,1 | 4 | 18,2 |
| EAE-ANV | 13 | 26,0 | 0 | 0 | 3 | 16,7 | 10 | 45,5 |
| Independentea | 10 | 20,0 | 2 | 20 | 3 | 16,7 | 5 | 22,7 |
| PSE | 3 | 6,0 | 1 | 10 | 1 | 5,6 | 1 | 4,5 |
| EA | 1 | 2,0 | 0 | 0 | 0 | 0,0 | 1 | 4,5 |
| PP | 1 | 2,0 | 0 | 0 | 0 | 0,0 | 1 | 4,5 |
| **GUZTIRA** | **50** | **100,0** | **10** | **100,0** | **18** | **100,0** | **22** | **100,0** |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa Eudeleko datuak oinarritzat hartuta.

Nahiz eta genero distantzia Euskadiko alkatetza kopuruan handia den, 60 puntu portzentajean, Estatua osatzen duten beste Autonomia Estatutuekin alderatuz, Euskadi da, Madrilekin batera distantziarik txikiena duena. Datuen bilakaerak, 1983tik aurrera, adierazten du etengabe apur bat txikituz doala genero distantzia. AAEE guztiek murriztu dituzte diferentziak alkate eta alkatesen portzentajeetan, %8 eta 34 artean udal gobernuko 24 urteetan. Hala ere, 2007an ez dago Autonomia Erkidego bakar bat %20 alkatesa baino gehiago duenik.

Genero distantziaren bilakaera alkatetzetan, 1983tik 2007ra, lau etapatan erakuts daiteke: Lehen etapak 1983 eta 1987ko hauteskundeak hartzen ditu, bigarrena 1991tik 1995erakoa da, hirugarrenak 1999 eta 2003ko hauteskundeak hartzen ditu, eta azkenik, laugarren etapa 2007ko hauteskundeekin hasiko litzateke. 1987 arte emakumeen presentzia alkatetzetan ez zen %5 baino gehiago, Kantabria zegoen mugan %5,1arekin. 1991ko hauteskundeetan etapa berri bat hasi zen eta bi eratako AAEEak erakusten ditu, alkatesak %5-10 dituztenak eta aurreko etapa gainditu ez dutenak. Euskadik, Madril eta Balear Uharteekin batera alkatesarik gehien duten AAEEen taldea gidatzen du, bi Gaztela, Nafarroa eta Errioxarekin batera. 1995eko hauteskundeek ez dakarte aldaketa handirik AAEEn talde bi horietan. Aragoi eta Extremadura iritsi dira lehen taldera eta Balear Uharteek eta Madrilek gainditu dute %10a.

Hirugarren etapa 1999an hasten da. Oraingoan hiru AAEE talde egin daitezke, buru egiten dutenek %10-15 dauzkate alkatesak, aurreko etapako liderrez gain (Madrid, Euskadi, Gaztela-Mantxa, Gaztela-Leon eta Nafarroa), Valentziar Erkidegoa, alkatesa portzentaje handiaren goratzearekin taldera sartzen da. 2003an sartuko dira Balear Uharteak, Kanariar Uharteak, Extremadura, Aragoi, Asturias, Errioxa eta Andaluzia. AAEEen bigarren taldean, alkatesak %5-10 dituztela, daude Kantabria, Murtzia eta Katalunia, eta azkenik, azken taldean %5era iritsi ezinik daude Galizia, Kantabria eta Kanariar Uharteak; 2003an Galizia izango da bakarra emakumeen presentzia hain txikia duena.

2007an aldaketa esanguratsuak gertatzen dira, ez dago Erkidego bakar bat %5 alkatesa baino gutxiago duenik eta bi AAEE dira soilik %10 alkatesa ez daukatenak. Balear Uharteak

eta Galizia. Hala, bi talde nagusi egin daitezke, alkatetzan %10-15 emakume dauzkatenak eta %15 emakume baino gehiago daukatenak. Euskadik dauka azken talde honen lidergoa.

**TAULA 2.16.** Alkatetzen bilakaera Autonomia Erkidego eta sexuaren arabera. 1983-2007

| | 1983 | | 1987 | | 1991 | | 1995 | | 1999 | | 2003 | | 2007 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | %E | %G | %E | %G | %E | %G | %E | %G | %E | %G | %E | %G | %E | %G |
| Andaluzia | 2,1 | 97,9 | 2,1 | 97,9 | 1,8 | 98,2 | 3,9 | 96,1 | 7,8 | 92,2 | 13,1 | 86,9 | 16,0 | 84,0 |
| Aragoi | 1,8 | 98,2 | 2,5 | 97,5 | 4,9 | 95,1 | 6,9 | 93,1 | 9,5 | 90,5 | 11,9 | 88,1 | 13,4 | 86,6 |
| Asturias | 3,8 | 96,2 | 4,2 | 95,8 | 3,8 | 96,2 | 3,8 | 96,2 | 6,4 | 93,6 | 12,8 | 87,2 | 14,1 | 85,9 |
| Balear Uharteak | 1,5 | 98,5 | 1,6 | 98,4 | 7,5 | 92,5 | 10,4 | 89,6 | 9,0 | 91,0 | 10,4 | 89,6 | 9,0 | 91,0 |
| Kanariar Uharteak | 1,1 | 98,9 | 1,2 | 98,8 | 2,3 | 97,7 | 2,3 | 97,7 | 4,6 | 95,4 | 10,3 | 89,7 | 12,6 | 87,4 |
| Kantabria | 3,9 | 96,1 | 5,1 | 94,9 | 3,9 | 96,1 | 2,9 | 97,1 | 3,9 | 96,1 | 6,9 | 93,1 | 11,8 | 88,2 |
| Gaztela-Leon | 2,3 | 97,7 | 3,9 | 96,1 | 5,5 | 94,5 | 7,6 | 92,4 | 10,8 | 89,2 | 13,1 | 86,9 | 13,6 | 86,4 |
| Gaztela-Mantxa | 2,1 | 97,9 | 3,8 | 96,2 | 6,8 | 93,2 | 8,6 | 91,4 | 13,4 | 86,6 | 15,8 | 84,2 | 17,5 | 82,5 |
| Katalunia | 1,6 | 98,4 | 2,7 | 97,3 | 3,6 | 96,4 | 4,7 | 95,3 | 7,0 | 93,0 | 10,0 | 90,0 | 12,7 | 87,3 |
| Extremadura | 3,2 | 96,8 | 3,7 | 96,3 | 4,2 | 95,8 | 5,8 | 94,2 | 7,6 | 92,4 | 12,1 | 87,9 | 15,7 | 84,3 |
| Galizia | 1,9 | 98,1 | 2,7 | 97,3 | 3,5 | 96,5 | 4,5 | 95,5 | 3,2 | 96,8 | 4,5 | 95,5 | 8,0 | 92,0 |
| Madril | 2,2 | 97,8 | 4,6 | 95,4 | 8,4 | 91,6 | 10,6 | 89,4 | 11,7 | 88,3 | 17,9 | 82,1 | 19,6 | 80,4 |
| Murtzia | 8,9 | 91,1 | 2,3 | 97,7 | 4,4 | 95,6 | 6,7 | 93,3 | 6,7 | 93,3 | 8,9 | 91,1 | 13,3 | 86,7 |
| Nafarroa | 0,4 | 99,6 | 3,8 | 96,2 | 5,2 | 94,8 | 5,1 | 94,9 | 11,0 | 89,0 | 14,8 | 85,2 | 17,7 | 82,3 |
| Errioxa | 2,9 | 97,1 | 3,7 | 96,3 | 5,7 | 94,3 | 8,0 | 92,0 | 8,0 | 92,0 | 12,6 | 87,4 | 10,3 | 89,7 |
| E. Valentziarra | 0,6 | 99,4 | 1,4 | 98,6 | 3,5 | 96,5 | 6,1 | 93,9 | 11,6 | 88,4 | 12,6 | 87,4 | 17,5 | 82,5 |
| Euskadi | 2,6 | 97,4 | 4,3 | 95,7 | 9,3 | 90,7 | 8,8 | 91,2 | 12,0 | 88,0 | 14,6 | 85,4 | 19,9 | 80,1 |
| Ceuta eta Melilla | | | | | | | | | 0,0 | 100,0 | 0,0 | 100,0 | 0,0 | 100,0 |
| GUZTIRA | 2,0 | 98,0 | 3,2 | 96,8 | 4,9 | 95,1 | 6,5 | 93,5 | 9,6 | 90,4 | 12,6 | 87,4 | 14,6 | 85,4 |

*Iturria*: Emakumearen Institutua.
*Oharra*: 2007ko datuak behin-behinekoak dira

# 3
# ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA JUDIZIALA

## ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO PERTSONALA

# 3.1

Administrazio Publikoan emakumeen presentzia esanguratsua izan da aspaldiko urte hauetan. Lan arlo askotarako sarbidea zail izan du emakumeak, aldiz, emakumeak dira gehiengo, estatu garaikide askotako funtzio publikoan. Gure inguruan begiratuz gero, 6.171 pertsona daude Eusko Jaurlaritzako sailetan eta erakunde autonomoetan lanean, eta argi erakusten dute joera hori, emakumeak %59,3 baitira. Pertsonala mailakatzerakoan, lanpostuaren kokapen geografikoari begira, Gipuzkoa da emakume portzentaje handiena duena: %64.

**TAULA 3.1.** **Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomoetako pertsonala sexuaren arabera. 2008.**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| Araba | 2.995 | 1.759 | 58,7 | 1.236 | 41,3 |
| Gipuzkoa | 1.296 | 829 | 64,0 | 467 | 36,0 |
| Bizkaia | 1.880 | 1.072 | 57,0 | 808 | 43,0 |
| GUZTIRA | 6.171 | 3.660 | 59,3 | 2.511 | 40,7 |

*Iturria*: Funtzio Publikoaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza.

Sailka, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila da emakume portzentajerik txikiena daukana pertsonalean (%45,7), eta gehien daukana, berriz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (%75,5). Osasun Sailak eta Lehendakariordetza Sailak ia bi heren emakume daukate pertsonalean. Erakunde autonomoetan Emakunde dago nabarmen, lan egiten dutenen %81,5 emakumeak dira.

**TAULA 3.2.** Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomoetako pertsonala sexuaren arabera. 2008.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| IVAP | 108 | 71 | 65,7 | 37 | 34,3 |
| HABE | 72 | 35 | 48,6 | 37 | 51,4 |
| Poliziaren Ikastegia | 123 | 67 | 54,5 | 56 | 45,5 |
| Eustat | 200 | 128 | 64,0 | 72 | 36,0 |
| Emakunde | 27 | 22 | 81,5 | 5 | 18,5 |
| Osalan | 159 | 78 | 49,1 | 81 | 50,9 |
| Garraio eta Herri Lan Saila | 101 | 47 | 46,5 | 54 | 53,5 |
| Kultura | 165 | 101 | 61,2 | 64 | 38,8 |
| Osasuna | 910 | 599 | 65,8 | 311 | 34,2 |
| Lehendakariordetza | 147 | 96 | 65,3 | 51 | 34,7 |
| Ogasun eta Herri Administrazioa | 498 | 269 | 54,0 | 229 | 46,0 |
| Lehendakaritza | 88 | 55 | 62,5 | 33 | 37,5 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 356 | 218 | 61,2 | 138 | 38,8 |
| Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa | 2.637 | 1.992 | 75,5 | 645 | 24,5 |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 267 | 168 | 62,9 | 99 | 37,1 |
| Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza | 593 | 370 | 62,4 | 223 | 37,6 |
| Ingurumena eta Lurralde Antolamendua | 140 | 70 | 50,0 | 70 | 50,0 |
| Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura | 175 | 80 | 45,7 | 95 | 54,3 |
| Herrizaingoa | 699 | 345 | 49,4 | 354 | 50,6 |
| **GUZTIRA** | **7.465** | **4.811** | **64,4** | **2.654** | **35,6** |

*Iturria*: Funtzio Publikoaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza.

Erakunde autonomoen menpeko herri administrazioak badauzka beste hiri alor berezitu batzuk non pertsona askok lan egiten duten: hezkuntza ez unibertsitarioa, osasun publikoa eta polizia autonomikoa. Lehenengoan 22.319 lagun ari dira lanean eta horietatik %72,3 emakumeak dira. Datu hauek erakusten dute, beste arlo batzuetan bezala, emakumeen presentzia hezkuntzan bereziki nabarmena dela.

**TAULA 3.3.** Unibertsitatekoak ez diren irakasleak, Eusko Jaurlaritzari atxikitakoak, sexuaren arabera. 2008.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| Araba | 3.492 | 2.453 | 70,2 | 1.039 | 29,8 |
| Gipuzkoa | 7.760 | 5.460 | 70,4 | 2.300 | 29,6 |
| Bizkaia | 11.067 | 8.222 | 74,3 | 2.845 | 25,7 |
| **GUZTIRA** | **22.319** | **16.135** | **72,3** | **6.184** | **27,7** |

*Iturria*: Funtzio Publikoaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza.
*Oharra*: Irakasleak direnak eta ez direnak sartzen dira.

Bigarrenik, osasun publikoan hezkuntzan dagoen joera bera ikusten da. Hala, Eusko Jaurlaritzari atxikitako pertsonala, osasun erakundeetan ari dena, 22.706 lagunek osatzen dute, horietatik %74,2 emakumeak dira. Lurralde Historikoak aztertuz, Araban emakumeen proportzioa handiagoa da gizonena baino, baina %60,7ra jaisten da.

**TAULA 3.4.** **Osasun erakundeetako pertsonala, Eusko Jaurlaritzari atxikitakoa, sexuaren arabera. 2008.**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| Araba | 5.147 | 3.125 | 60,7 | 2.022 | 39,3 |
| Gipuzkoa | 6.549 | 4.993 | 76,2 | 1.556 | 23,8 |
| Bizkaia | 11.969 | 8.725 | 72,9 | 3.244 | 27,1 |
| **GUZTIRA** | **22.706** | **16.843** | **74,2** | **5.863** | **25,8** |

*Iturria*: Funtzio Publikoaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza.

*Oharra*: Sanitarioak eta ez sanitarioak sartzen dira.

Hirugarrenik, Eusko Jaurlaritzari atxikitako pertsonala, erkidegoko euskal poliziarena, hezkuntzan eta osasun arloan ez bezalakoa da. 2008ko datuen arabera, erkidegoko polizian 7.665 pertsona daude eta 803 bakarrik dira emakumezkoak, hau da, %10,5 bakarrik.

**TAULA 3.5.** **Erkidegoko poliziaren pertsonala, Eusko Jaurlaritzari atxikitakoa, sexuaren arabera. 2008.**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| Araba | 1.747 | 185 | 10,6 | 1.562 | 89,4 |
| Gipuzkoa | 2.110 | 250 | 11,8 | 1.860 | 88,2 |
| Bizkaia | 3.851 | 368 | 9,6 | 3.483 | 90,4 |
| **GUZTIRA** | **7.665** | **803** | **10,5** | **6.862** | **89,5** |

*Iturria*: Funtzio Publikoaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza.

Erkidegoko poliziari buruzko informazioa mailakatzen badugu, sexuen arteko aldeak nabarmenak dira. Une honetan goi eskalako eta eskala exekutibokoak diren 103 postuetatik bakar bat ere ez dago emakume baten esku, eta, azpi-ikuskapen eskalan 339 postuetatik 22 bakarrik dira emakumeenak, hau da, %6,5 bakarrik. Orain neurri batzuk hartzen ari dira emakumeei sarbidea errazteko erkidegoko polizian (aipagarriena plaza batzuk erreserbatzea promozio prozesuetan).

**TAULA 3.6.** **Erkidegoko poliziaren pertsonala, Eusko Jaurlaritzari atxikitakoa, sexuaren eta eskalaren arabera. 2008.**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| Goi mailako eskala | 1 | 0 | 0,0 | 1 | 100,0 |
| Eskala exekutiboa | 102 | 0 | 0,0 | 102 | 100,0 |
| Azpi-inspekzio eskala | 339 | 22 | 6,5 | 317 | 93,5 |
| Oinarrizko eskala | 7.223 | 781 | 10,8 | 6.442 | 89,2 |
| GUZTIRA | 7.665 | 803 | 10,5 | 6.862 | 89,5 |

*Iturria*: Funtzio Publikoaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza.

Foru Administrazioetan dabilen pertsonalaz, esan dezagun Bizkaiko Foru Aldundian (guztira 2850 pertsona) %48,3 emakumeak direla eta %51,7 gizonezkoak, beraz nahiko orekatuta dago. Lanpostuei begira, nabarmena da zuzendaritzako idazkari guztiak emakumezkoak direla, guztira 22; eta aldiz Aldundiko 12 zuzendaritza-ordetatik bakarra dago emakume baten esku.

**TAULA 3.7.** **Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuan dagoen pertsonala, lanpostuaren eta sexuaren arabera. 2008.**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| Zuzendariordetza orokorrak | 12 | 1 | 8,3 | 0,1 | 11 | 91,7 | 0,7 |
| Zerbitzuetako Buruak | 88 | 39 | 44,3 | 2,8 | 49 | 55,7 | 3,3 |
| Atalburuak | 177 | 73 | 41,2 | 5,3 | 104 | 58,8 | 7,1 |
| Teknikariak | 806 | 426 | 52,9 | 30,9 | 380 | 47,1 | 25,8 |
| Zuzendaritzako Idazkariak | 22 | 22 | 10,0 | 1,6 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| Administrariak | 1.628 | 765 | 47,0 | 55,6 | 863 | 53,0 | 58,6 |
| Mendekoak | 117 | 51 | 43,6 | 3,7 | 66 | 56,4 | 4,5 |
| GUZTIRA | 2.850 | 1.377 | 48,3 | 100,0 | 1.473 | 51,7 | 100,0 |

*Iturria*: Genero Politiketarako Arloa, Bizkaiko Foru Aldundia.

Datuak sailkatzen baditugu pertsonala osatzen duten taldeen arabera, ikusiko dugu sexuen proportzioa nahiko orekatuta dagoela A, B eta E taldeetan, C taldean emakumeek daukate presentzia handiagoa (%65,3) eta aldiz, D taldean gizonezkoen presentzia askoz handiagoa da (%80,8).

**TAULA 3.8.** **Bizkaiko Foru Aldundiko Administrazioaren mende dagoen pertsonala, talde eta sexuaren arabera. 2008.**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| A Taldea | 611 | 285 | 46,6 | 20,7 | 326 | 53,4 | 22,1 |
| B Taldea | 472 | 254 | 53,8 | 18,4 | 218 | 46,2 | 14,8 |
| C Taldea | 1.020 | 666 | 65,3 | 48,4 | 354 | 34,7 | 24,0 |
| D Taldea | 630 | 121 | 19,2 | 8,8 | 509 | 80,8 | 34,6 |
| E Taldea | 117 | 51 | 43,6 | 3,7 | 66 | 56,4 | 4,5 |
| GUZTIRA | 2.850 | 1.377 | 48,3 | 100,0 | 1.473 | 51,7 | 100,0 |

*Iturria*: Genero Politiketarako Arloa, Bizkaiko Foru Aldundia.

Bizkaiko Foru Aldundia osatzen duten sailak kontuan hartuz, esan dezakegu zazpitan orekatuta dagoela gizon-emakumeen proportzioa, beste lau badira, aldiz, alde nabarmena daukatenak. Emakumeak gutxiago dira honako hauetan: Udal Harremanak (%19), Nekazaritza (%24,5) eta Herri Lanak (%36,8). Gizarte-ekintzan bestela gertatzen da, emakumeen portzentajea %82,6 da.

**TAULA 3.9.** **Bizkaiko Foru Aldundiko Administrazioaren mende dagoen pertsonala, sailaren eta sexuaren arabera. 2008**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| Ahaldun Nagusiaren kabinetea | 34 | 17 | 50,0 | 1,1 | 17 | 50,0 | 1,0 |
| Nekazaritza | 310 | 76 | 24,5 | 4,7 | 234 | 75,5 | 13,7 |
| Gizarte-ekintza | 380 | 314 | 82,6 | 19,5 | 66 | 17,4 | 3,9 |
| Kultura | 278 | 166 | 59,7 | 10,3 | 112 | 40,3 | 6,6 |
| Ogasuna eta Finantzak | 1.109 | 671 | 60,5 | 41,7 | 438 | 39,5 | 25,7 |
| Herri Lanak | 212 | 78 | 36,8 | 4,8 | 134 | 63,2 | 7,9 |
| Udal Harremanak eta Herri Administrazioa | 694 | 132 | 19,0 | 8,2 | 562 | 81,0 | 33,0 |
| Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena | 70 | 40 | 57,1 | 2,5 | 30 | 42,9 | 1,8 |
| Ingurumena | 81 | 36 | 44,4 | 2,2 | 45 | 55,6 | 2,6 |
| Garraioa eta Hirigintza | 99 | 53 | 53,5 | 3,3 | 46 | 46,5 | 2,7 |
| Enplegu eta Trebakuntza | 44 | 26 | 59,1 | 1,6 | 18 | 40,9 | 1,1 |
| GUZTIRA | 3.311 | 1.609 | 48,6 | 100,0 | 1.702 | 51,4 | 100,0 |

*Iturria*: Genero Politiketarako Arloa, Bizkaiko Foru Aldundia.

Estatuko Administrazio Orokorrak EAEn dauzkan ordezkaritza eta ordezkari- ordetzetan lan egiten duen pertsonala aztertuz, esan dezakegu gobernuaren ordezkaria, bi ordezkariorde eta ordezkaritzako eta 3 ordezkari-ordetzetako idazkariak gizonezkoak direla, emakume bat

dago ordezkariorde. Hala ere, emakumeak dira gehiengoa administrazio periferikoari atxikitako pertsonalean, %61,4.

**TAULA 3.10.** Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuan dagoen pertsonala, Gobernuak EAEn daukan Ordezkaritzan eta Ordezkari ordetzetan. 2008.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| Gobernuaren Ordezkaria | 1 | 0 | 0,0 | 0,0 | 1 | 100,0 | 0,6 |
| Ordezkaritzako Idazkari Orokorra | 1 | 0 | 0,0 | 0,0 | 1 | 100,0 | 0,6 |
| Gobernuaren Ordezkari ordeak | 3 | 1 | 33,3 | 0,4 | 2 | 66,7 | 1,2 |
| Ordezkari ordetzetako Idazkaritza Orokorrak | 3 | 0 | 0,0 | 0,0 | 3 | 100,0 | 1,8 |
| Arloetako Zuzendaritzak | 5* | 2 | 40,0 | 0,8 | 3 | 60,0 | 1,8 |
| Pertsonala | 412 | 253 | 61,4 | 98,8 | 159 | 38,6 | 94,1 |
| **GUZTIRA** | **425** | **256** | **61,0** | **100,0** | **169** | **39,0** | **100,0** |

*Iturria*: Gobernuaren ordezkaritza Euskadiko Autonomia Erkidegoan.
*= Guztira 6 zuzendaritza dira, baina une honetan bat hutsik dago.

Azkenik, badira datuak Estatuko Administrazio Orokorrari buruzkoak, alderatu ahal izateko. Estatuko Administrazio orokorrean lan egiten dute 228.875 pertsonek, eta oreka bat dago gizon eta emakume artean. Sexuaren araberako ezberdintasunak agertzen dira pertsonala ministeriotan banatzen badugu. Hala, Administrazio Publikoen Ministerioak egindako sailkapenaren arabera, oinarrizko lanak egiten dituzten arloetan (Administrazio Publikoak, Defentsa, Justizia, Kanpo Arazoak eta Lankidetza, Barne saila, Gobernuaren Eleduna, Presidentzia) emakumeak %44,7 dira. Betekizun ekonomikoak dauzkaten arloetan (Ekonomia eta Ogasuna, Turismoa eta Merkataritza, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura) emakumeen portzentajea handiagoa da, %54,9, eta azpiegiturekin lotura daukaten jardunetan aritzen diren arloek (Sustapena, Ingurumena eta Etxebizitza) daukate emakume kopururik txikiena portzentajean, %32,3. Beste muturrean daude betekizun soziokulturalak dauzkaten arloak (Lana eta Gizarte Gaiak, Hezkuntza eta Zientzia, Zientzia eta Teknologia, Osasuna eta Kontsumoa, Kultura), emakumeak %58,7 dira.

**TAULA 3.11.** Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuan dagoen pertsonala, ministerioaren eta sexuaren arabera. 2007.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % | ABS. | % |
| **GUZTIRA** | **228.875** | **116.331** | **50,8** | **112.544** | **49,2** |
| Oinarrizko betekizunak | 83.283 | 37.245 | 44,7 | 46.038 | 55,3 |
| Betekizun ekonomikoak | 52.826 | 29.011 | 54,9 | 23.815 | 45,1 |
| Azpiegiturak | 16.651 | 5.373 | 32,3 | 11.278 | 67,7 |
| Betekizun soziokulturalak | 76.115 | 44.702 | 58,7 | 31.413 | 41,3 |

*Iturria*: Administrazio Publikoetako Ministerioa.
*Oharra*: Funtzionarioak eta lan-legepeko pertsonala sartzen da (Ministerioak, Erakunde Autonomoak eta Lotutako Arloak).

## ADMINISTRAZIO JUDIZIALEKO PERTSONALA 3.2

EAEko Justizia Administrazioari atxikitako pertsonala emakumeek osatzen dute gehienbat: pertsonal titularra edo bitartekoa 1.430 pertsonek osatzen dute, %75 emakumezkoak dira. Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzak 2007an egindako txostenaren arabera, lan-legepeko pertsonalean, 124 pertsona dira eta %70,2 emakumeak. Arlo honek, bada, emakume portzentajerik handiena dauka, emakume gehiago du administrazio orokorrean baino. Adinaren arabera, funtzionariorik gehienak 36 eta 50 urte bitartekoak dira eta gehiengoa emakumezkoa da.

**TAULA 3.12.** EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuan dauden funtzionarioak, adinaren eta sexuaren arabera. 2007.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| URTEAK | | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| 25 urtetik beherakoak | 2 | 2 | 100,0 | 0,2 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| 26-30 urte | 6 | 6 | 100,0 | 0,6 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| 31-35 urte | 69 | 50 | 72,5 | 4,7 | 19 | 27,5 | 5,3 |
| 36-40 urte | 219 | 169 | 77,2 | 15,8 | 50 | 22,8 | 14,0 |
| 41-45 urte | 431 | 319 | 74,0 | 29,8 | 112 | 26,0 | 31,3 |
| 46-50 urte | 388 | 287 | 74,0 | 26,8 | 101 | 26,0 | 28,2 |
| 51-55 urte | 191 | 138 | 72,3 | 12,9 | 53 | 27,7 | 14,8 |
| 56-60 urte | 97 | 81 | 83,5 | 7,6 | 16 | 16,5 | 4,5 |
| 61-65 urte | 25 | 19 | 76,0 | 1,8 | 6 | 24,0 | 1,7 |
| + 65 urte | 2 | 1 | 50,0 | 0,1 | 1 | 50,0 | 0,3 |
| GUZTIRA | **1.430** | **1.072** | **75,0** | **100,0** | **358** | **25,0** | **100,0** |

*Iturria*: Justizia Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza, Memoria 2007 urtea.
*Oharra*: Hor sartzen dira titularrak, bitartekoak eta ordezkoak.

Maila judizialak kontuan hartuz, baiezta dezakegu gaur egun sistema judiziala emakumeek osatzen dutela gehienbat. Hala, epaile eta magistratu emakumezkoak guztien %54,9 dira, idazkaritza judizialetan %74,5 eta fiskaltzetan %68,6. Era berean, prokuradoreen %65,6 emakumezkoa da. Prokuradoreak ez daude justizia administrazio barruan sartuta, baina ezinbestekoak dira hark funtzionatzeko, izan ere, bezeroak ordezkatzen dituzte auzitegi edo epaitegiaren aurrean, eta prozedura judizial askotan beharrezkoa eta derrigorrezkoa da haien jarduna.

Alderantzikoa gertatzen da bake epaitegietan eta abokatutzan. Bestalde, bake epaitegiek lege maila txikiagoko auziak ebazten dituzte, komunitate txiki batean, epaile profesionalik ez baitago eta arduradunak Udalbatzarrak hautatzen baititu. EAEn gaur egun 237 bake epaitegi daude eta horietatik 82 emakumeek zuzentzen dituzte, hau da %34,6ak. Bestalde, justizia administrazioaren funtzionamenduarekin lotura gehien daukan kolektiboa abokatuena da, 7.051 pertsona dira, horietatik %39 emakumeak.

**TAULA 3.13.** EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuan dagoen pertsonala, kategoria eta sexuaren arabera. 2007.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| Magistratura eta Epailetza | 214 | 117 | 54,9 | 3,5 | 97 | 45,1 | 2,0 |
| Idazkaritza Judiziala | 185 | 138 | 74,5 | 4,1 | 47 | 25,5 | 1,0 |
| Fiskaltza | 85 | 58 | 68,6 | 1,7 | 27 | 31,4 | 0,6 |
| Bake Epaitegien titularrak | 237 | 82 | 34,6 | 2,4 | 155 | 65,4 | 3,3 |
| Abokatutzako profesionalak* | 7.051 | 2.750 | 39,0 | 81,3 | 4.301 | 61,0 | 90,5 |
| Prokuradoretzako profesionalak | 364 | 239 | 65,6 | 7,1 | 125 | 34,4 | 2,6 |
| **GUZTIRA** | **8.136** | **3.384** | **41,6** | **100** | **4.752** | **58,4** | **100** |

*Iturria*: Justizia Administrazioko Euskal Behatokia. *Memoria 2007.*
*= 2005eko datuak.

Estatuko sistema judizialari begira, ikusten dugu joera dagoela baita ere emakume proportzio handiagoa izateko, batez ere epaile eta fiskal emakumezkoetan (%64,1 eta %60,3 hurrenez hurren) eta idazkaritza judizialetan (%54,4). Magistraturetan, aldiz, gizonak gehiago dira emakumeak baino (emakumeak %41,6). Proportziorik txikiena Auzitegi Gorenean da, 79 magistraturatik 4 bakarrik dira emakumezkoak, hau da, %5,1 dira, portzentajea oso urrun dago beste maila judizial batzuetako presentziatik.

**TAULA 3.14.** Estatuko Sistema Judizialean dagoen pertsonala, kategoria eta sexuaren arabera. 2005.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| Auzitegi Goreneko Presidentzia | 1 | 0 | 0,0 | 0,0 | 1 | 100 | 0,02 |
| Auzitegi Goreneko Magistraturak | 79 | 4 | 5,1 | 0,1 | 75 | 94,9 | 1,7 |
| Magistratuak | 3.610 | 1.502 | 41,6 | 32,8 | 2.108 | 58,4 | 48,8 |
| Epaileak | 761 | 488 | 64,1 | 10,7 | 273 | 35,9 | 6,3 |
| Idazkaritza Judiziala | 1.697 | 924 | 54,4 | 20,2 | 773 | 45,6 | 17,9 |
| Fiskaltzak | 2.746 | 1.657 | 60,3 | 36,2 | 1.089 | 39,7 | 25,2 |
| GUZTIRA | 8.894 | 4.575 | 51,4 | 100,0 | 4.319 | 48,6 | 100,0 |

*Iturria*: Emakumearen Institutua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian –hori da EAEn antolamendu judizialaren goren maila- gobernuko presidentzian eta idazkaritzan gizonezkoak daude, eta fiskal burua emakumezkoa da.

**TAULA 3.15.** Emakumeak eta gizonezkoak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. 2008.

| | |
|---|---|
| Presidentea | Gizona |
| Gobernu Idazkaritza | Gizona |
| Fiskal Burua | Emakumea |

*Iturria*: Justizia Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza <www.justizia.net>

Kolektibo profesional ezberdinek osatzen dituzten erakundeei begira (3), zuzendaritza organoak nahiko orekatuak dira osaeran, sexuari dagokionez. Hala, nahiz eta hiru Lurralde Historikoetako Abokatuen Elkargoek dekanoa gizonezkoa izan, diputatuen artean emakumeek presentzia orekatua daukate, 17 dira 32tik.

(3) Atal honetan elkarteen izendapen ofíciala sartu dugu, nahiz eta horietan guztietan gizonezkoen generoa sartu.

**TAULA 3.16.** Hiru Lurralde Historikoetako Abokatu Elkargoetako Gobernu Batzordeen Osaera sexuaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | | | ARABA | | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | G | E | G | G | E | G | G | E | G |
| Dekanoa | 3 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 |
| Dekano-ordea | 2 | 1 | 1 | 0 | - | - | - | 1 | 0 | 1 |
| Diputatuak | 32 | 9 | 5 | 4 | 11 | 5 | 6 | 12 | 7 | 5 |
| Idazkaritza | 3 | 1 | 1 | 0 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 |
| Diruzaintza | 3 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 |
| | 43 | 13 | 7 | 6 | 14 | 5 | 9 | 16 | 7 | 9 |

*Iturria*: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa.
<www.icaalava.com>;< www.icasv-bilbao.com>;<www.icagi.net>
(Kontsulta data: Azaroa 2008)

Legelarien Euskal Kontseiluko Gobernu Batzordeak, aldiz, askoz proportzio txikiagoa dauka, 3 emakume 13 kideren artean, eta 3 horietatik bakar batek ere ez du kide bakarreko kargurik.

**TAULA 3.17.** Legelarien Euskal Kontseiluko Gobernu Batzordearen osaera sexuaren arabera. 2008.

| | GUZTIRA | E | G |
|---|---|---|---|
| **PRESIDENTZIA** | **1** | **0** | **1** |
| Presidenteordetza | 2 | 0 | 2 |
| Epaimahaikideak | 8 | 3 | 5 |
| Idazkaritza | 1 | 0 | 1 |
| Diruzaintza | 1 | 0 | 1 |
| **GUZTIRA** | **13** | **3** | **10** |

*Iturria*: Legelarien Euskal Kontseilua <www.abogaciavasca.net>
(Kontsulta data: Azaroa 2008)

Hiru Lurralde Historikoetako Prokuradore Elkargoen Gobernu Batzordeak guztira 28 kide dauzka eta horietatik 13 emakumeak dira. Kide bakarreko karguak 15 dira eta horietatik 6 emakumezkoak (dekano bat, dekano-orde bat, bi idazkari, idazkariorde bat eta diruzain bat). Datuek parekotasun egoera erakusten dute, baina ez dugu ahaztu behar emakume prokuradoreak %65,6 direla.

**TAULA 3.18.** Hiru Lurralde Historikoetako prokuradore Elkargoen Gobernu Batzordearen osaera sexuaren arabera. 2008.

| | GUZTIRA | ARABA | | | BIZKAIA | | | GIPUZKOA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | T | M | H | T | M | H | T | M | H |
| Dekanoa | 3 | 1 | 1 | 0 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 |
| Dekano-ordea | 3 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 0 |
| Idazkaritza | 3 | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 |
| Idazkariordetza | 3 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 0 |
| Diruzaintza | 3 | 1 | 1 | 0 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 |
| Epaimahaikideak | 13 | 3 | 3 | 0 | 4 | 1 | 3 | 6 | 3 | 3 |
| GUZTIRA | 28 | 8 | 5 | 3 | 9 | 2 | 7 | 11 | 6 | 5 |

*Iturria*: Espainiako Prokuradoreen Kontseilu Orokorra <www.cgpe.es>
(Kontsulta data: Azaroa 2008)

Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradore Kontseiluaren osoko bilkura osatzen dutenak 9 kide dira, horietatik 3 emakumeak, gutxiengoa beraz.

**TAULA 3.19.** Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradore Kontseiluaren Osoko bilkuraren osaera. 2008.

| | GUZTIRA | E | G |
|---|---|---|---|
| Presidentzia | 1 | 0 | 1 |
| Idazkaritza | 1 | 1 | 0 |
| Diruzaintza | 1 | 0 | 1 |
| Kontseilariak | 6 | 2 | 4 |
| GUZTIRA | 9 | 3 | 6 |

*Iturria*: Espainiako Prokuradoreen Kontseilu Orokorra <www.cgpe.es>
(Kontsulta data: Azaroa 2008)

Bukatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Bake Epaileen “Epaile Artean” elkarteak bere baitan biltzen ditu bake epaitegietako arduradunak (titularrak eta ordezkoak) eta lehenago izan direnak EAEn. Gobernu batzordearen osaerak erakusten du gehiengoa gizonek dutela, bi emakume daude 8 kideen artean.

**TAULA 3.20.** Bake Epaileen “Epaile Artean” Elkarteak gobernu batzordean duen osaera, sexuaren arabera. 2008.

| | GUZTIRA | E | G |
|---|---|---|---|
| Presidentzia | 1 | 0 | 1 |
| Presidenteordetza | 1 | 0 | 1 |
| Epaimahaikideak | 4 | 1 | 3 |
| Idazkaritza | 1 | 1 | 0 |
| Diruzaintza | 1 | 0 | 1 |
| GUZTIRA | 8 | 2 | 6 |

*Iturria*: Justizia Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza <www.justizia.net>
(Kontsulta data: Azaroa 2008)

# 4

# ALDERDI POLITIKOAK ETA HAUTAGAITZAK

## AFILIAZIOA ETA ZUZENDARITZAK

# 4.1

Dauzkagun datuen arabera, emakumeek gizonek baino presentzia txikiagoa dute Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza daukaten alderdi politikoen afiliazioan. Halere, EA eta EBko datuek parekotasuna erakusten dute (emakumeen %40,1), EAJ eta PSE gertu dabiltza, eta Aralar aski urrun (%19)

**TAULA 4.1.** Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza daukaten alderdien afiliazioetan dauden emakume eta gizonen portzentajea. 2008.

| | GUZTIRA ABS. | EMAKUMEAK % | GIZONAK % |
|---|---|---|---|
| EAJ-PNV | 29.750 | 36,3 | 63,7 |
| PSE-EE | | 38,8 | 61,2 |
| EA | | 40,1 | 59,9 |
| EB-Berdeak | | 40,0 | 60,0 |
| PP | | | |
| Aralar | | 19,0 | 81,0 |

*Iturria*: Alderdi politiko bakoitzak emandako informazioa.
*Oharra*: EHAK legez kanpo dago eta beraz ez dago informaziorik hari buruz.

Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza daukaten alderdi politikoen zuzendaritzetan emakumeek daukaten partaidetza ez da iristen parekotasuna lortzera gehienetan. EAEn PSE-EE da alderdi bakarra zuzendaritzan %40 baino gehiago emakumeak dauzkana; 12 emakume daude 28 kideren artean, hau da. %42,9. Gainerako alderdiek ez dute parekotasunik iristen, batez ere EAk (hauxe da hain zuzen emakume afiliatu gehien dituen alderdia), Zuzendaritzan 17 kide dira eta horietatik 4 dira emakumezkoak, hau da, %23,5.

**TAULA 4.2.** Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza daukaten alderdietako zuzendaritzetan dauden emakume eta gizonen portzentajea. 2008.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| EAJ-PNV | 12 | 4 | 33,3 | 8 | 66,7 |
| PSE-EE | 28 | 12 | 42,9 | 16 | 57,1 |
| EA | 17 | 4 | 23,5 | 13 | 76,5 |
| EB-Berdeak | 16 | 5 | 31,3 | 11 | 68,8 |
| PP | | | | | |
| Aralar | 17 | 6 | 35,3 | 11 | 64,7 |

*Iturria*: Web orrialdeak eta alderdi politiko bakoitzak emandako informazioa (Kontsulta, azaroa 2008).
*Oharra*: EHAK legez kanpo dago eta beraz ez dago informaziorik hari buruz.

Kongresuan ordezkaritza daukaten alderdietan (ganberan 5 jarleku edo gehiago dauzkatenak bakarrik hartzen ditugu kontuan) ikusten dugu afiliazioa gehienbat gizonek osatzen dutela. Dauden datuen arabera, 1996tik aurrerako bilakaerak erakusten du emakumeen proportzioak gora egin duela, baina ez da sekula iristen %40ra, muga horretatik behera geratzen da. 2001 urtean, alderdi guztiei buruzko informazioa egon den urte bakarra, bazen ezberdintasunik, EBren %29a eta EAJren %32,5a horren lekuko. Esan daiteke, bada, alderdi politikoetako afiliazioak, ideologia gora-behera, gizonen esku daudela gehienbat.

**TAULA 4.3.** **Kongresuan 5 jarleku edo gehiago dauzkaten alderdi politikoen afiliazioaren bilakaera. Portzentajeak sexuaren arabera. 1996-2005.**

| | 1996 | | 2000 | | 2001 | | 2002 | | 2005 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | %E | %G | %E | %G | %E | %G | %E | %G | %E | %G |
| PP | 29,7 | 70,3 | 29,7 | 70,3 | 32,8 | 67,2 | | | | |
| PSOE | 24,7 | 75,3 | 24,7 | 75,3 | 28,4 | 71,6 | 30,0 | 70,0 | 31,7 | 68,3 |
| IU | | | | | 29,0 | 71,0 | 32,0 | 68,0 | | |
| EAJ-PNV | 38,3 | 61,7 | 38,3 | 61,7 | 34,5 | 65,5 | | | | |
| CDC | | | | | 29,4 | 70,6 | | | | |
| Coalición Canaria (ATI)* | | | | | 32,6 | 67,4 | | | | |

*Iturria*: Emakumearen Institutua.
*CCko datua Asociación Tinerfeña Independiente-rena da, hau izan da CCko alderdi bakarra datuak eman dituena.
Ezin izan dugu lortu CIUri buruzko daturik.

Orain ikus dezagun Estatuko alderdi nagusien zuzendaritzen osaera, 2004ko datuek alde nabarmena erakusten dute alderdien artean. Hala PSOEk dauka emakumeen presentziarik handiena (%34,6) eta EAJk txikiena (%14,3). Nolanahi ere, nabarmentzekoa da ez zegoela alderdi bakar bat ere portzentajea orekatu parekoa zeukana, gutxienekoa %40 hartzen badugu.

**TAULA 4.4.** **Estatuko alderdi politiko nagusietako zuzendaritzetako osaera, sexuaren arabera. 2004.**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| PSOE | 26 | 9 | 34,6 | 17 | 65,4 |
| PP | 97 | 26 | 26,8 | 71 | 73,2 |
| IU | 80 | 27 | 33,8 | 53 | 66,2 |
| EAJ-PNV | 14 | 2 | 14,3 | 12 | 85,7 |
| CIU | 91 | 25 | 27,5 | 66 | 72,5 |
| -CDC | 55 | 14 | 25,5 | 41 | 74,5 |
| -UDC | 36 | 11 | 30,6 | 25 | 69,4 |
| CC | 38 | 9 | 23,7 | 29 | 76,3 |
| **GUZTIRA** | **346** | **98** | **28,3** | **248** | **71,7** |

*Iturria*: Emakumearen Institutua.

## HAUTESKUNDEETAKO HAUTAGAITZAK 4.2

Erakunde publikoetan emakumeen parte hartzea aztertzerakoan beti hausnartu izan da alderdi politikoetako hautagaitzetan izan duten presentzia eta kokapena. Gure inguruan zenbait alderdi politikok onartu egin zituzten laurogeita hamargarren hamarkadan barne araudi batzuk, aukera ematen zutenak emakume gehiago hauteskunde-zerrendetan sartzeko, baina ez zuten beti bermatzen irteera postuetan jarriko zituztenik eta beraz emakumeen presentzia handituko zenik erakundeetan.

Hala, azken urteetan onartu diren berdintasun legeek xedapen batzuk sartu dituzte talde politikoak behartzen dituztenak emakume kopuru jakin bat sartzera zerrendetan eta gainera zerrendako maila ezberdinetan egon daitezen. EAEn bi dira gai honetan eragiten duten legeak. Batetik *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea*, zuzenean eragiten diena Eusko Legebiltzarreko eta Batzar Orokorretako hautagai-zerrendei eta exijitzen duena “alderdi politiko, federazio, koalizio edo taldeei gutxienez %50 emakumeak izatea zerrenda-kideak" eta proportzio hori mantentzea "hautagaien zerrenda osoan eta sei izeneko zerrenda zati guztietan” (4). Bestalde, *martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzekoak*, hautagaitzen osaera ezartzen du udal hauteskundeetan, Kongresurako, Senaturako, Europar Parlamenturako hauteskundeetan. Lege honek exijitzen du hautagai-zerrendek “emakume-gizonen arteko osaera orekatua izan behar dutela, zerrendan sexu bakoitzeko hautagaiek ehuneko berrogei hartu behar dute gutxienez” eta “proportzio horri eutsi behar zaiola bost postuko zerrenda zati bakoitzean”. Are gehiago, udal hauteskundeetan, araudiak ez die eragingo 3.000 biztanletik beherako udalei, baina modu iragankorrean, onura-bide hau eduki dezakete baita ere 5.000 biztanletik gorako herriek (5).

Nahiz eta bi legeek filosofia bera izan, badira hiru alde interesgarri. Alde batetik, proportzioa mantendu beharreko zerrenda zatiak 6koak dira lege autonomikoan eta 5ekoak estatuko legean. Bestalde, portzentajea %40 da estatuko legean, eta lege autonomikoan, berriz, %50. Azkenik, euskal legearen atalik berritzaileena zera da, bermatu egiten duela emakume kopuru gutxieneko bat, eta estatuko legeak gizonengana ere hedatzen du berme hori.

(4) Laugarren Azken Xedapena, ekainaren 15eko Parlamenturako Hauteskundeen 5/1990 Legearen aldaketarena, eta Bosgarren Azken Xedapena, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeen martxoaren 27ko 1/1987 Legearen aldaketarena.

(5) Bigarren Xedapen Gehigarria, Hauteskundeen Araubide Orokorrari Buruzko Lege organikoaren aldaketakoa.

## EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2005

# 4.2.1

Eusko Legebiltzarrerako hautagaitzen osaerak, 2005eko maiatzeko hauteskundeetan, berdintasunaren legeak esandako arauak bete ditu. Hautagaitza gehienetan emakume eta gizonen presentzia orekatua izan da, gehienbat 12/13 formula erabili da sexu baten edo bestearen alde. Kasu batzuetan, adibidez Partido Comunista de las Tierras Vascas-Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunista (EHAK) hiru lurraldeetan aurkeztutako zerrendetan, emakumeak gehiengo izan dira eta hautagaien %60 izatera heldu dira. Hautagaien zerrendetan bi sexuek izan duten osaera eta barneko banaketa ez da berdina izan eta Aralarrek aurkeztutako zerrendetan bakarrik aurkitu ditugu gizonak eta emakumeak txandaka, *kremailera* deitzen zaion sistemari jarraiki. Halere, nahiz eta emakumeak gehiengo izan diren Eusko Legebiltzarrerako hautagaitzetan, zerrendaburuak gizonezkoak izan dira gehienetan. Hain zuzen ere, 18 hautagaitza aztertu dira eta horietatik 6 bakarrik zeuden buru emakumea zutela. Nabarmentzekoa da EHAK, emakumeak bakarrik aurkeztu zituen zerrendaburu hiru lurralde historikoetan, eta Alderdi Popularra, lehendakarigai emakume bat aurkeztu zuena.

**TAULA 4.5.** Eusko Legebiltzarerako hautagaitzen osaera Lurralde Historikoko, sexuaren eta alderdi politikoaren arabera, 2005 urtean.

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | ZERRENDABURUAK |
|---|---|---|---|
| ARABA | | | |
| ARALAR | 12 | 13 | Gizona |
| EAJ-PNV/EA | 12 | 13 | Gizona |
| EB-IU | 14 | 11 | Emakumea |
| EHAK | 17 | 8 | Emakumea |
| PP | 13 | 12 | Gizona |
| PSE-EE | 12 | 13 | Gizona |
| **GUZTIRA** | **80** | **70** | **4 gizon** |
| | **53,3%** | **46,7%** | **2 emakume** |
| BIZKAIA | | | |
| ARALAR | 12 | 13 | Gizona |
| EAJ-PNV/EA | 13 | 12 | Gizona |
| EB-IU | 14 | 11 | Gizona |
| EHAK | 15 | 10 | Emakumea |
| PP | 13 | 12 | Gizona |
| PSE-EE | 13 | 12 | Gizona |
| **GUZTIRA** | **80** | **70** | **5 gizon** |
| | **53,3%** | **46,7%** | **Emakume 1** |
| GIPUZKOA | | | |
| ARALAR | 12 | 13 | Emakumea |
| EAJ-PNV/EA | 14 | 11 | Gizona |
| EB-IU | 13 | 12 | Gizona |
| EHAK | 15 | 10 | Emakumea |
| PP | 13 | 12 | Emakumea |
| PSE-EE | 13 | 12 | Gizona |
| **GUZTIRA** | **80** | **70** | **3 gizon** |
| | **53,3%** | **46,7%** | **3 emakume** |
| **GUZTIRA EAE** | **240** | **210** | **12 gizon** |
| | **53,3%** | **46,7%** | **6 Emakume** |

*Iturria*: Martinez Hdez, Eva eta Elizondo Lopetegi, Arantxa (2005): *"Luces y sombras del papel político de las mujeres en la Comunidad Autónoma del País Vasco" en VII Congreso Español de Ciencia Política y de la Administración*
(http://www.aecpa.es/congreso_07/archivos/area6/GT-22/MartinezyElizondo.pdf)
Oharra: Parlamentuan ordezkaritza lortu zuten alderdi haiek bakarrik jasotzen ditu taulak.

## FORU ETA UDAL HAUTESKUNDEAK 2007

# 4.2.2

Foru Hauteskundeetan hautagaitzek daukaten emakume eta gizonen proportzioak antzeko joera du. Hautagaitzak osaeran orekatuta agertzen dira, legearen arabera. Hala ere, interesgarria da nabarmentzea emakumeak eta gizonak daudela hautagaitzetako lehen postuan.

Araban emakumeek osatzen dute hautagaitzen %61,8, baina, aldiz, hamazazpi hautagaitzetatik bakarra dago emakumea buru duena.

**TAULA 4.6.** Arabako Lurralde Historikoko Batzar Orokorretarako hautagaitzen osaera. 2007.

| HAUTAGAITZA | EMAKUMEAK | GIZONAK | ZERRENDABURUAK |
|---|---|---|---|
| VITORIA-GASTEIZ | | | |
| EAJ-PNV | 22 | 19 | Gizona |
| EA | 20 | 20 | Gizona |
| EAE-ANV | 20 | 20 | Gizona |
| EB-IU-ARALAR | 20 | 18 | Gizona |
| PP | 22 | 19 | Gizona |
| PSE-EE | 21 | 20 | Gizona |
| ZUIA, AGURAIN, AÑANA, KANPEZU eta LAGUARDIA | | | |
| EAJ-PNV | 5 | 5 | Emakumea |
| EA | 5 | 5 | Gizona |
| EAE-ANV | 5 | 5 | Gizona |
| EB-IU-Aralar | 4 | 4 | Gizona |
| PP | 6 | 4 | Gizona |
| PSE-EE | 5 | 5 | Gizona |
| AIARA-AYALA | | | |
| EAJ-PNV | 5 | 3 | Gizona |
| EA | 6 | 4 | Gizona |
| EAE-ANV | 5 | 4 | Gizona |
| EB-IU-ARALAR | 5 | 2 | Gizona |
| PP | 5 | 4 | Gizona |
| PSE-EE | 5 | 4 | Gizona |
| **GUZTIRA ARABA** | **236**<br>**61,8%** | **146**<br>**38,2%** | **16 gizon**<br>**Emakume 1** |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, ALHAO, 52. zka. (2007-5-1) oinarri hartuta.

*Oharra*: Batzar Orokorretan ordezkaritza lortu zuten hautagaitzak hartu dira kontuan, zein barrutitakoak diren begiratu gabe.

Joerak badirau baina Bizkaian zerbait aldentzen da. Emakumeak hautagaien %52,6 dira, baina aztertutako 24etatik zazpi bakarrik dira buru emakumea dutenak.

**TAULA 4.7.** Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Orokorretarako hautagaitzen osaera. 2007.

| HAUTAGAITZA | EMAKUMEAK | GIZONAK | ZERRENDABURUAK |
|---|---|---|---|
| BILBAO | | | |
| EAJ-PNV | 10 | 9 | Gizona |
| EA | 8 | 8 | Gizona |
| EAE-ANV | 10 | 11 | Gizona |
| EB-Berdeak-ARALAR | 10 | 9 | Gizona |
| PP | 10 | 9 | Gizona |
| PSE-EE (*) | 8 | 8 | Gizona |
| BUSTURIALDEA | | | |
| EAJ_PNV | 8 | 8 | Emakumea |
| EA (*) | 7 | 6 | Gizona |
| EAE-ANV | 9 | 8 | Emakumea |
| EB-Berdeak-Aralar | 9 | 7 | Gizona |
| PP | 9 | 7 | Gizona |
| PSE-EE(*) | 8 | 5 | Emakumea |
| DURANGO-ARRATIA | | | |
| EAJ-PNV | 7 | 5 | Gizona |
| EA (*) | 5 | 4 | Gizona |
| EAE-ANV | 8 | 5 | Emakumea |
| EB-Berdeak-ARALAR | 7 | 6 | Emakumea |
| PP | 7 | 5 | Emakumea |
| PSE-EE(*) | 5 | 4 | Gizona |
| ENKARTERRIAK | | | |
| EAJ-PNV | 8 | 8 | Emakumeak |
| EA (*) | 6 | 7 | Gizona |
| EAE-ANV | 8 | 9 | Gizona |
| EB-IU-ARALAR | 8 | 8 | Gizona |
| PP | 9 | 7 | Gizona |
| PSE-EE(*) | 7 | 6 | Gizona |
| **GUZTIRA BIZKAIA** | **188**<br>**52,6** | **169**<br>**47,4** | **17 gizon**<br>**7 Emakume** |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, BAO 84 zka (2007-5-1) oinarri hartuta.

*Oharra*: Batzar Orokorretan ordezkaritza lortu zuten hautagaitzak hartu dira kontuan, zein barrutitakoak diren begiratu gabe.
Ordezkoak zenbatu dira, ordezkorik gabeko hautagaitzetan izan ezik. (*).

Azkenik, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaitzak bide beretik doaz. Hautagaitzetan emakumeak %51,1 dira eta gizonak %48,9, baina aztertutako 20 hautagaitzetan 6 bakarrik dira hautagaitzak buru emakumea dutenak.

**TAULA 4.8.** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Orokorretarako hautagaitzen osaera. 2007.

| HAUTAGAITZA | EMAKUMEAK | GIZONAK | ZERRENDABURUAK |
|---|---|---|---|
| BIDASOA-OIARTZUN | | | |
| EAJ-PNV | 8 | 6 | Emakumea |
| EA | 6 | 8 | Gizona |
| EB-IU-ARALAR | 7 | 7 | Emakumea |
| PP | 8 | 6 | Gizona |
| PSE-EE (*) | 6 | 5 | Gizona |
| DEBA-UROLA | | | |
| EAJ_PNV | 9 | 8 | Gizona |
| EA | 7 | 9 | Gizona |
| EB-IU-Aralar | 8 | 8 | Emakumea |
| PP | 10 | 7 | Emakumea |
| PSE-EE(*) | 7 | 7 | Gizona |
| DONOSTIALDEA | | | |
| EAJ-PNV | 11 | 9 | Emakumea |
| EA | 9 | 10 | Gizona |
| EB-IU-ARALAR | 9 | 10 | Gizona |
| PP | 11 | 9 | Gizona |
| PSE-EE(*) | 9 | 8 | Emakumea |
| ORIA | | | |
| PP | 7 | 5 | Gizona |
| PSE-EE(*) | 5 | 4 | Gizona |
| EAJ-PNV | 6 | 6 | Gizona |
| EB-IU-ARALAR | 5 | 7 | Gizona |
| EA | 5 | 7 | Gizona |
| GUZTIRA GIPUZKOA | 153<br>51,1% | 146<br>48,9% | 6 Emakume<br>14 Gizon |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, GAO 84 zka (2007-5-1) oinarri hartuta.

*Oharra*: Batzar Orokorretan ordezkaritza lortu zuten hautagaitzak hartu dira kontuan, zein barrutitakoak diren begiratu gabe.
Ordezkoak zenbatu dira, ordezkorik gabeko hautagaitzetan izan ezik (*).

Udal hauteskundeetara aurkeztutako hautagaitzek erakusten dute alde txikirik foru eta tokiko hauteskundeekiko. Hala, legearen arabera zerrenden osaeran parekotasunik badagoen arren, estatuko legea da bermatzen duena gutxienez %40a sexu bakoitzarentzat eta hori betetzen da.

Gainera, aurrean aztertutako hautagaitzetan bezala, zerrendetan sexuen parekotasuna egoteak ez du esan gura zerrendaburuetan gauza bera gertatzen denik. Hala, hiriburuetan emakumeak 4 hautagaitzatan bakarrik izan ziren buru, eta 14 izan ziren guztira, ordezkaritza lortu zuten hautagaitzak. Aipatzekoa da Gasteizko Udalerako hautagaitzetan bakarra ez zegoela, buru emakumea zuena.

**TAULA 4.9.** Hiriburuetako udaletarako hautagaitzen osaera, sexuaren eta alderdi politikoaren arabera. 2007.

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | ZERRENDABURUAK |
|---|---|---|---|
| BILBAO | | | |
| EAJ-PNV | 15 | 17 | Gizona |
| EB-IU-ARALAR | 14 | 15 | Emakumea |
| PP | 15 | 18 | Gizona |
| PSE-EE | 14 | 15 | Gizona |
| **GUZTIRA** | **58** | **65** | **3 gizon** |
| | %47,2 | %52,8 | Emakume 1 |
| DONOSTIA | | | |
| EAJ-PNV/EA | 15 | 15 | Gizona |
| EB-IU-ARALAR | 13 | 17 | Emakumea |
| EA | 12 | 18 | Emakumea |
| PP | 13 | 16 | Emakumea |
| PSE-EE | 13 | 14 | Gizona |
| **GUZTIRA** | **66** | **80** | **2 gizon** |
| | %45,2 | %54,8 | 3 emakume |
| VITORIA-GASTEIZ | | | |
| EAJ-PNV/EA | 14 | 16 | Gizona |
| EB-IU-ARALAR | 13 | 14 | Gizona |
| EA | 15 | 15 | Gizona |
| PP | 13 | 16 | Gizona |
| PSE-EE | 16 | 14 | Gizona |
| **GUZTIRA** | **71** | **75** | **5 gizon** |
| | %48,6 | %51,4 | 0 emakume |
| GUZTIRA EAE | 195 | 220 | 10 Gizon |
| | %47 | %53 | 4 Emakume |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, hauek oinarri hartuta: ALHAO, 52. zka. (2007-5-1), BAO, 84. zka. (2007-5-1) eta GAO, 84. zka. (2007-5-1).

*Oharra*: Parlamentuan ordezkaritza lortu zuten hautagaitzak sartu dira taulan. Ordezkoak zenbatu dira hautagaitzak zekartzanean.

## HAUTESKUNDE OROKORRAK 2008 4.2.3

EAEko barrutietan 2008ko martxoko hauteskunde orokorretarako aurkeztu diren hautagaitzetan badago sexuen parekotasunik. Estatuko legea betez Diputatuen Kongresurako hautagaitzek gainditzen dute emakumezkoen %40a, baina ez dira emakumeak nagusitzen, autonomia erkidegoko eta foru hauteskundeetan bezala. Hala, hautagaitzen %47,6 dira emakumeak eta %52,6 gizonezkoak. Zerrendaburuari dagokionez, gauzak are gordinago daude, ordezkaritza lortu zuten hautagaitza guztiek zeukaten gizon bat zerrendaburu.

**TAULA 4.10.** Kongresurako hautagaitzen osaera sexuaren arabera 2008ko Hauteskunde Orokorretan.

| HAUTAGAITZAK | EMAKUMEAK | GIZONAK | ZERRENDABURUAK |
|---|---|---|---|
| ARABA | | | |
| EAJ-PNV | 3 | 4 | Gizona |
| PP | 3 | 4 | Gizona |
| PSE-EE | 4 | 4 | Gizona |
| **GUZTIRA ARABA** | **10**<br>(%45,5) | **12**<br>(%54,5) | **3 gizon** |
| BIZKAIA | | | |
| EAJ-PNV | 5 | 6 | Gizona |
| PP | 5 | 6 | Gizona |
| PSE-EE | 5 | 6 | Gizona |
| **GUZTIRA BIZKAIA** | **15**<br>(%45,5) | **18**<br>(%54,5) | **3 gizon** |
| GIPUZKOA | | | |
| EAJ-PNV | 5 | 4 | Gizona |
| PP | 5 | 4 | Gizona |
| PSE-EE | 5 | 6 | Gizona |
| **GUZTIRA GIPUZKOA** | **15**<br>(%51,7) | **14**<br>(%48,3) | **3 Gizon** |
| GUZTIRA EAE | 40<br>(%47,6) | 44<br>(%52,4) | 9 gizon<br>%100 |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, hau oinarri hartuta: web orrialdea, Barne Ministerioa. <http://www.elecciones.mir.es> (Kontsulta data: Azaroa 2008)

*Oharra*: Ordezkaritza lortu zuten hautagaitzak bakarrik sartu dira taulan. Ordezkoak ere zenbatu eta sartu egin dira.

Senatuan antzerakoa da joera. 2008ko martxoan egindako hauteskundeetan emakumeek osatzen dituzte Hiru Lurralde Historikoetan aurkeztutako hautagaitzen %48,1, eta gizonek %51,9.

**TAULA 4.11.** Senaturako hautagai-zerrenden osaera, sexuaren arabera, 2008ko Hauteskunde Orokorretan.

| HAUTAGAITZAK | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|
| ARABA | | |
| EAJ-PNV | 1 | 2 |
| PP | 1 | 2 |
| PSE-EE | 2 | 1 |
| BIZKAIA | | |
| EAJ-PNV | 2 | 1 |
| PP | 1 | 2 |
| PSE-EE | 1 | 2 |
| GIPUZKOA | | |
| EAJ-PNV | 2 | 1 |
| PP | 2 | 1 |
| PSE-EE | 1 | 2 |
| GUZTIRA EAE | 13 | 14 |
| | 48,1 | 51,9 |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, Barne Ministerioak web orrialdean jasotako datuetan oinarrituta. <http://www.elecciones.mir.es> (Kontsulta data: Azaroa 2008)

*Oharra*: Ordezkaritza lortu zuten hautagaitzak bakarrik sartu dira. Ordezkoak ez dira zenbatu.

# 5

# ERAKUNDE SOZIALAK ETA PROFESIONALAK

# SINDIKATUAK ETA ERAKUNDE PATRONALAK

# 5.1

Sindikatuak funtsezko elementua dira bai produkzio merkatuan eta bai gizarte egituran. Helbururik nagusiena langileen ongizate hobea lortzea da. Helburu hori iristeko, enpresa jabeekin negoziatu behar da eta eragile funtsezko bihurtzen dira botere politikoen neurri ekonomiko eta sozial estrategikoen planifikazioan. Hala, erakunde hauek gizartean garrantzia duen eginkizun bat daukate, bitartekariak dira langileen eskariak enpresa jabeei eta botere publikoei helarazterakoan.

Emakumeak langile bihurtzeak aldaketak ekarri ditu erakunde hauen afiliazioan eta zuzendaritza organoetan. LAB eta ELAn emakumeek afiliatu guztien herena inguru bakarrik osatzen dute. Datu hauek erakusten dute desoreka bat dagoela pertsona aktiboen portzentajearen (sexuaren arabera) (%58 gizonak eta %42 emakumeak EUSTAT 2007ko datuen arabera) eta afiliatutako pertsonen portzentajearen artean (sexuaren arabera). Bestalde, *Emakumeak eta gizonak Espainian 2008* txostenean, Estatistikako Institutu Nazionalak eta Emakumearen Institutuak egindakoa da, jasotzen da UGT eta CCOO sindikatuen afliliazioaren bilakaera Estatuan 1996tik 2006ra. Datuek erakusten dute emakumeen afiliazioak gora egin duela, %23-24tik %32-36ra pasatuz hurrenez hurren.

Gaurko egunean, Euskadiko lau sindikatu nagusietatik hiruk, ELA, UGT eta CCOOek gizon bat dute ordezkari nagusi, LABek badauka Idazkari Orokor emakumezko bat. Zuzendaritza batzordeen osaera, sexuaren arabera, alde handikoa da; zuzendaritza batzordea LABen %58,3 emakumeek osatzen dute eta ELAn %25.

**TAULA 5.1.** Idazkaritza Orokorrak eta Zuzendaritza Batzordeak sindikatu nagusietan sexuaren arabera. 2008.

| | IDAZKARITZA OROKORRA | | ZUZENDARITZA BATZORDEA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
| | ABS. | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| ELA | 0 | 1 | 4 | 25,0 | 12 | 75,0 | 16 |
| LAB | 1 | 0 | 7 | 58,3 | 5 | 41,7 | 12 |
| UGT | 0 | 1 | 2 | 33,3 | 4 | 66,7 | 6 |
| CCOO | 0 | 1 | 3 | 30,0 | 7 | 70,0 | 10 |

*Iturria*: harremana posta eta telefono bidez, eta sindikatuetako web orrialdeak <http://www.ccoo-euskadi.net/; http://www.ela-sindikatua.org/ http://www.ugt.es/ejecutivas/uniones/ceeuskadi.htm; http://www.labsindikatua.org/> (Kontsulta data: Azaroa 2008)

*Oharra*: Aukeratutako sindikatuak ordezkaritzarik handiena daukatenak dira, DJESSek jaso eta Eustatek argitaratutako datuen arabera.

*Emakumeak eta Gizonak Espainian 2008* txostenak erakusten du zein izan den emakumeek sindikatu nagusietako zuzendaritza batzordeetan izan duten presentziaren bilakaera. Jasotako datuek erakusten dute 1989 eta 1999 urte biartean gertatu zela aldaketarik handiena organo hauen osaeran, generoari dagokionez, hala ondoren hazkundea etengabea da, baina apalagoa; USO sindikatuan izan ezik, emakumeen presentzia azken 20 urteetan gehitu da. Estatuko datuak EAEkoekin alderatzen baditugu, esan daiteke presentzia antzerakoa dela CCOOen, eta UGTn estatuko batzordeak betetzen du parekotasun printzipioa eta Euskadikoak ez.

**TAULA 5.2.** Emakumeen presentziaren bilakaera, estatuko sindikatu nagusien zuzendaritza batzordeetan. 2008.

| | 1989 | 98-99 | 2002 | 2004 | 2006 |
|---|---|---|---|---|---|
| CCOO | 20,0 | 30,0 | 29,6 | 29,2 | 30,3 |
| UGT | 9,1 | 27,3 | 30,0 | 46,2 | 46,2 |
| USO | | 8,3 | 8,3 | 14,3 | 25,0 |

*Iturria*: INE. *Emakumeak eta Gizonak Espainian 2008.*

Ugazabak ere elementu garrantzizkoak dira produkzio merkatuaren antolamenduan. Gizarte eta erakundeek aitortzen diete eragile erabakigarriak direla ekonomia arloan eta horregatik dira erabaki organo esanguratsuak. Gaurko egunean Euskadin generoan alde dezentekoa dago ugazaberiaren osaeran. Euskal enpresarien artean emakumeen presentzia urrun dago parekotasun printzipiotik, aurrerago aztertuko dugunez. Hala ere, hori hala izanagatik, ugazaben gobernu batzordeetan are txikiagoa dute partaidetza, portzentajerik handiena Adegik dauka, %20. Gainera, sindikatuetan gertatzen den bezala, emakume bakar batek ere ez du buru egiten Euskadiko enpresari elkarteetan.

**TAULA 5.3.** Euskal enpresaburuen Presidentzia eta Zuzendaritza Batzordea, sexuaren arabera. 2008.

| | PRESIDENTZIA | | ZUZENDARITZA BATZORDEA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
| | ABS. | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| CONFEBASK | 0 | 1 | 2 | 6,0 | 31 | 94,0 | 33 |
| CEBEK | 0 | 1 | 2 | 6,0 | 31 | 94,0 | 33 |
| ADEGI | 0 | 1 | 3 | 20,0 | 12 | 80,0 | 15 |
| SEA | 0 | 1 | 2 | 6,7 | 28 | 93,3 | 30 |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, datuak telefonoz eskatuta.
Kontsulta data: Azaroa 2008)

## ELKARTE PROFESIONALAK ETA MERKATAL GANBARAK

# 5.2

Elkarte profesionalek pertsonen interesak defendatzen dituzte titulazioaren arabera. Eusko Jaurlaritzako Komunikazio Gidaren bidez atal honetan aztertu ditugu hiru Lurralde Historikoetan inskribatuta dauden 103 elkarte profesionalen zuzendaritza, presidentzia edo ordezkaritza. Aztertutako elkarte guztietatik %12,6 bakarrik dira emakumea buru dutenak. Portzentaje hau txikiagoa da Bizkaiko Lurralde Historikoan eta handiagoa Arabako Lurralde Historikoan.

**TAULA 5.4.** Elkarte Profesionalak, Lurralde Historikoaren arabera eta buru duten pertsonaren sexuaren arabera. 2008.

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| EAE | 13 | 12,6 | 90 | 87,4 | 103 |
| Araba | 4 | 16,0 | 21 | 84,0 | 25 |
| Bizkaia | 5 | 11,1 | 40 | 88,9 | 45 |
| Gipuzkoa | 4 | 12,1 | 29 | 87,9 | 33 |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, Eusko Jaurlaritzako *Komunikazio Gida* oinarri hartuta.
(Kontsulta Data: Urria 2008)

Hurrengo hiru taulek elkarte profesionalak antolatzen dituzte, buru emakumea edo gizona duten arabera, Euskadiko Autonomia Erkidegoa osatzen duten Lurralde Historiko bakoitzean. Hiru taulak ikusita bi aipamen egin daitezke: alde batetik, elkarte profesional horien izenetan emakume arrastorik ez dela agertzen, eta bestetik, emakumeak buru diren elkargoak hiru Lurralde Historikoetan daudela.

Erakunde profesionalek, oro har, izenetan, gizonezkoen genero orokorra daukate. Salbuespenak anitzagoak dira: Pertsonaren izena saihestu eta kontzeptu neutroagoak erabiltzea (Colegio Oficial de Enfermería, Asociación Vasca de Sociología y Ciencia Política); izenean bertan desberdintasunik markatzen ez duten izendapenak (Colegio Oficial de Economistas y los Colegios Oficiales de Agentes y Comisiones de Aduanas de Irun y Pasajes) eta azkenik, kasu hau, Colegio Oficial de Diplomad@s en Trabajo Social y Asistentes Sociales de Bizkaia, "@" zeinua erabili dute gizonezkoen genero orokorra ez erabiltzeko. (*Itzultzailearen oharra:* elkarte profesionalen izenetan gazteleraz genero aukera atzeman daiteke maiz, baina hori oso nekez gertatzen da euskaraz. Bakar-bakarrik gizon/andre edo antzerako hitzen bat sartzen denean. Euskarak bazekien parekotasun printzipioa jarriko zutena.)

Euskal elkarte profesional guztiek komuna duten elementua da: emakumea buru bada erakundean, hiru Lurralde Historikoetan daude emakumeak buru erakunde horretan. Hala, Lurralde bakoitzaren berezitasunez haratago, Gizarte Lanean diplomatutakoen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialak, bai Araban, bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan emakumeek zuzentzen dituzte, eta gauza bera gertatzen da Erizaintzako Elkargo Ofizialarekin, hiru Lurraldeetan.

Oro har, ez dago loturarik jakintza-arlo bakoitzean dauden emakume eta gizon diplomatu, lizentziatu, arkitekto eta ingeniariak- eta elkarte profesional hauek zuzentzen dituztenen sexuaren artean. *Zenbakiak gizon eta emakumeei buruz Euskadin 2007* txostenean esaten denez.

**TAULA 5.5.** Arabako Lurralde Historikoan kokatuta dauden elkarte profesionalak buru duenaren sexuaren arabera. 2008.

| EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|
| Arabako Gizarte laneko Diplomatuen eta Gizarte Laguntzaileen E.O. | Arabako Abokatuen Elkargoa. |
| Arabako Erizaintzako E.O. | Agente Komertzialen E.O. |
| Arabako Prokuradoreen E. | Arabako Aparejadore eta Arkitektoen E.O. |
| Arabako Psikologoen E.O. | Euskalerriko Arkitektoen E.O.- Arabako ordezkaritza. |
| | Arabako Dekoratzaile/Barne Diseinatzaileen E.O. |
| | Arabako Delineatzaile eta Goi mailako teknikari Proiektugileen E-O. |
| | Arabako Farmazialarien E.O. |
| | Arabako Gizarte Graduatuen E.O. |
| | Aeronautika-Ingeniarien E.O. Iparreko ordezkaritza. |
| | Aragoi, Nafarroa eta Euskadiko Nekazaritzako Ingeniarien E.O. Arabako ordezkaritza. |
| | Euskadiko Nekazaritzako Ingeniari Teknikoen E.O. |
| | Arabako Industria Ingeniarien E.O. |
| | Topografiako Ingeniari Teknikoen E.O. |
| | Euskadi eta Arabako ordezkaritza. |
| | Arabako Ingeniari Tekniko Industrialen E.O. |
| | Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziadunen E.O. |
| | Arabako Aseguru Bitartekarien E.O. |
| | Arabako Medikuen E.O. |
| | Arabako Odontologo eta Estomatologoen E.O. |
| | Euskadiko Podologoen E.O. |
| | Arabako Albaitarien E.O. |
| | Kontuen Zinpeko Aztertzaileen Espainiako Institutua |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, Eusko Jaurlaritzako *Komunikazio Gida* oinarri hartuta.
(Kontsulta Data: Urria 2008)

Bizkaiko Lurralde Historikoa da helbideratuta elkarte profesional gehien dituen lurraldea, Eusko Jaurlaritzako *Komunikazio Gidaren* arabera. 45 elkarte profesionaletatik 5 bakarrik daude emakumea buru dutela. Erizaintzako Elkargo Ofizialaz gain, eta Gizarte Laneko diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialaz gain, Fisikoen Elkargo Ofizialak

Euskadin duen Ordezkaritza eta Euskalerriko Arkitektoen Elkargoko Dekanotza ere emakumeen esku daude.

**TAULA 5.6.** Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuta dauden elkarte profesionalak buru duenaren sexuaren arabera. 2008.

| EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|
| Euskalerriko Arkitektoen E.O. Dekanotza. | Abokatutzaren Euskal Kontseilua |
| Bizkaiko Erizainen E.O. | Bizkaiko Abokatu Epaileen E.O. |
| Soziologia eta Zientzia Politikoetako E.E. | Bizkaiko Agente Komertzialen E.O. |
| Bizkaiko Gizarte Laneko Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen E.O. | Bizkaiko Jabetzako Agenteen E.O. |
| Fisikarien E.O. Euskadiko Ordezkaritza. | Bilboko Aduanetako Agente eta Komisionisten E.O. |
| | Bizkaiko Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen E.O. |
| | Euskalerriko Arkitektoen E.O. Bizkaiko Ordezkaritza. |
| | Euskadiko Biologoen E.O. |
| | Bizkaiko Dekoratzaile-Barneko Diseinatzaileen E.O. |
| | Bizkaia eta Arabako Filosofia eta Letretan eta Zientzietan Doktore eta Lizentziadunen E.O. |
| | Ekonomilarien Euskal E. |
| | Bizkaiko Farmazialarien E.O. |
| | Euskadiko Fisioterapeuten E.O. |
| | Geologoen E.O. Euskadiko Ordezkaritza. |
| | Euskadiko Gestore Administratiboen E.O. |
| | Bizkaiko Lan-harremanetako Gradudunen E.O. |
| | Aragoi, Nafarroa eta Euskadiko Nekazaritza Ingeniarien E.O. |
| | Euskadiko Bide, Ubide eta Portuen Ingeniarien E.O. |
| | I.C.A.I.ko Ingeniarien E. Nazionala. Euskadiko Ordezkaritza. |
| | Espainia iparreko Meatze Ingeniarien E.O. |
| | Euskadiko Informatika Ingeniarien E.O. |
| | Bizkaiko Ingeniari Industrialen E.O. |
| | Euskadiko Herrilan Ingeniari Teknikoen E.O. |
| | Topografiako Ingeniari teknikoen E.O. Bizkaiko ordezkaritza. |
| | Basogintzako Ingeniari teknikoen E.O. eta Elkartea. Euskadiko ordezkaritza. |
| | Bizkaiko Ingeniari Tekniko Industrialen E.O. |
| | Euskadi, Nafarroa, Errioxa eta Soriako Meatzetako Ingeniari Tekniko, Peritu eta Fakultatiboen E.O. |
| | Bizkaiko Aseguruetako Bitartekarien E. |
| | Bizkaiko Medikuen E.O. |
| | Bilboko Notarioen Elkargoa |
| | Bizkaiko Odontologo eta Estomatologoen E.O. |
| | Optiko-Optometristen E. Eskualdeko Ordezkaritza. |
| | Bizkaiko Auzitegietako Prokuradoreen E.O. |
| | Bizkaiko Psikologoen E.O. |
| | Euskadiko Kimikarien E.O. eta Elkartea. |
| | Bizkaiko Tokiko Administrarien Idazkari, Kontuhartzaile eta Diruzainen E.O. |
| | Bizkaiko Goi Mailako Tekniko Proiektugileen eta Delineatzaileen E.O. |
| | Bizkaiko Merkataritza eta Enpresa Tituludunen E.O. |
| | Bizkaiko Albaitarien E.O. |
| | Espainiako Kontuen Zinpeko Aztertzaileen Institutua. Euskadiko Taldea. |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, Eusko Jaurlaritzako *Komunikazio Gida* oinarri hartuta. (Kontsulta Data:10/ 2008)

Gipuzkoako Lurralde Historikoak 33 elkarte profesional dauzka, horietatik 4 baino ez daude emakumeen zuzendaritzapean. Hala, Euskadiko Ekonomilarien Elkargo Ofizialaren atal gipuzkoarra emakume batek zuzentzen du, eta baita Gipuzkoako Filosofia eta Letretako Doktore eta Lizentziadunen Elkargo Ofiziala ere.

**TAULA 5.7.** **Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta dauden elkarte profesionalak, buru duenaren sexuaren arabera. 2008.**

| EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|
| Gipuzkoako Gizarte laneko Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen E.O. | Gipuzkoako Abokatuen E. |
| Gipuzkoako Filosofia eta Letretan eta Zientzietan Doktore eta Lizentziaduen direnen E.O. | Gipuzkoa eta Arabako Finka Administratzaileen Lurraldeko E. |
| Ekonomilarien Euskal E. Gipuzkoako saila. | Gipuzkoako Agente Komertzialen E.O. |
| Gipuzkoako Erizainen E.O. | Gipuzkoako Higiezinen Jabetzako Agenteen E.O. |
| | Irungo Aduanako Agente eta Komisiolarien E.O. |
| | Pasaiako Agente eta Komisiolarien E.O. |
| | Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen E.O. |
| | Euskalerriko Arkitektoen E.O. Gipuzkoako ordezkaritza. |
| | Gipuzkoako Dekoratzaile eta Barne Diseinatzaileen E.O. |
| | Gipuzkoako Delineatzaile eta Goi Mailako tekniko proiektugileen E.O. |
| | Gipuzkokao Farmazialarien E.O. |
| | Euskadiko Gestore Administratiboen E. Gipuzkoako ordezkaritza. |
| | Gipuzkoako Gizarte Gradudunen E.O. |
| | Aragoi, Nafarroa eta Euskadiko Nekazaritza Ingeniarien E.O. |
| | Espainia iparreko Meatze Ingeniarien E.O. Gipuzkoa-Arabako ordezkaritza. |
| | Euskadiko Mendiko Ingeniarien E.O. |
| | Gipuzkoako Ingeniari Industrialen E.O. |
| | Topografiako Ingeniari Teknikoen E.O. Gipuzkoako ordezkaritza. |
| | Euskadi, Nafarroa, Errioxa eta Soriako Meatzetako Ingeniari Tekniko, Peritu eta Fakultatiboen E.O. |
| | Gipuzkoako Auzitegietako Prokuradoreen E.O. |
| | Gipuzkoako Aseguruetako Bitartekarien E.O. |
| | Gipuzkoako Medikuen E.O. |
| | Gipuzkoako Odontologo eta Estomatologoen E.O. |
| | Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen E.O. eta Elkartea. |
| | Gipuzkoako Psikologoen E.O. |
| | Gipuzkoako Merkataritza eta Enpresa Tituludunen E.O. |
| | Gipuzkoako Albaitarien E.O. |
| | Notarioen Donostiako Ordezkaritza. |
| | Espainiako Kontuen Zinpeko Aztertzaileen Institutua. Euskadiko Taldea. |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, Eusko Jaurlaritzako *Komunikazio Gida* oinarri hartuta. (Kontsulta Data: Urria 2008)

Merkataritza Ganberek helburu nagusitzat daukate komertzio, industria eta itsas arloko interesak defendatzea eta enpresei zerbitzuak ematea. Zuzenbide publikoko korporazio hauek, nahiz eta zuzenbide pribatuak gestionatu, administrazio publikoen kontsulta organo esanguratsuak dira. Euskal enpresa guztiak hartzen dituen entitateak gizonek zuzentzen dituzte, ez bakarrik presidentzian eta zuzendaritza orokorrean, baizik eta baita hiru Lurralde

Historikoetako idazkaritza orokorretan ere. Hala, ez dago emakume bakar bat Euskadiko Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden Merkataritza Ganberen goi karguetan.

**TAULA 5.8.** Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberetako goi karguak. 2008.

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|---|---|---|---|
| Presidentzia | Gizona | Gizona | Gizona |
| Zuzendaritza Orokorra | Gizona | Gizona | Gizona |
| Idazkaritza Orokorra | Gizona | Gizona | Gizona |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, Eusko Jaurlaritzako *Komunikazio Gida* oinarri hartuta.

Merkataritza Ganberetako zuzendaritza organoetan gizonek daukaten nagusitasuna ez da bakarrik Euskadin gertatzen. Estatu mailan, Emakume eta Gizonak Espainian 2008 txostenean aztertutako 88 Merkataritza Ganberetatik 4 daude emakumeen zuzendaritzapean, proportzioa txikia da oso (%4,6). Azken bost urteetan bilakaera baikorra da, bitik lau presidentziara pasa da, halere, genero distantzia postu hauetan handia da oraindik.

**TAULA 5.9.** Espainiako Merkataritza Ganberetako presidentzien bilakaera. 2003-2008.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 2003 | 84 | 2 | 2,4 | 82 | 97,6 |
| 2004 | 88 | 2 | 2,4 | 86 | 97,7 |
| 2006 | 85 | 2 | 2,4 | 83 | 97,6 |
| 2007 | 86 | 4 | 4,7 | 82 | 95,3 |
| 2008 | 88 | 4 | 4,6 | 84 | 95,5 |

*Iturria*: EIN. *Emakumeak eta Gizonak Espainian 2008*.

## ENTITATE FINANTZARIOAK, ENPRESAK ETA KOOPERATIBAK

# 5.3

Entitate Finantzarioak herrialde guztietan sistema ekonomikoko elementu nabarmenak dira. Egoitza soziala Euskadin daukaten aurrezki kutxa eta banketxeek gizonezkoak dituzte buru. Gaurko egunean, era honetako entitateetan emakumeen presentzia deus ez da, baina ez da hori gertatzen Zuzendaritza Batzordeetan.

Zuzendaritza organo hauen osaera ezberdina da entitate finantzarioen arabera. Kutxa, BBK eta Caja Vital aurrezki kutxetan %25 dago emakumea Administrazio Kontseiluan, Ipar Kutxan %8,3 eta Euskadiko Kutxan %6,3. Banketxeen artean ere bada alderik Kontseiluen sexuen araberako osaeran; Banco Guipuzcoano-n ez dago emakumerik gobernu batzordean, BBVAn Administrazio Kontseilua osatzen duten 14 gizonen artean bada emakume bat 2002 urtetik aurrera. Nolanahi ere, erakunde hauek guztiak urrun daude zuzendaritza edo gobernu organoetan parekotasun printzipioa betetzetik.

**TAULA 5.10.** EAEn egoitza daukaten Entitate Finantzarioen Presidentzia eta Zuzendaritza Batzordea. 2008.

| | PRESIDENTZIA | | ADMINISTRAZIO KONTSEILUA /ZUZENDARITZA OROKORRA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GIZONAK | EMAKUMEAK | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
| | ABS. | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| KUTXA | 1 | 0 | 4 | 23,5 | 13 | 76,5 | 17 |
| BBK | 1 | 0 | 5 | 29,4 | 12 | 70,6 | 17 |
| Caja Vital | 1 | 0 | 4 | 25,0 | 12 | 75,0 | 16 |
| Euskadiko Kutxa | 1 | 0 | 1 | 6,3 | 15 | 93,8 | 16 |
| Ipar Kutxa | 1 | 0 | 1 | 8,3 | 11 | 91,7 | 12 |
| BBVA | 1 | 0 | 1 | 7,1 | 13 | 92,9 | 14 |
| Banco Guipuzcoano | 1 | 0 | 0 | 0,0 | 9 | 100,0 | 9 |

*Iturria*: Eskatutako informazioa eta entitateen web orrialdeak: <http://www.kutxa.net; http://www.bbk.es; http://www.cajavital.es; http://www.cajalaboral.es; http://www.bancogui.es>
(Kontsulta Data: Azaroa 2008)

Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) izeneko inkesta –Estatistikako Euskal Institutuak (EUSTAT) egiten du- informazio iturri ona da ekonomia arloan erabakitzeko gaitasuna daukatenei buruz. Egoera profesionalaren araberako populazio banaketak kontuan hartzen du pertsonak lan egiten duen enpresarekin duen harremana, eta kategoriatako bat enplegatzaileena da. Euskadiko Autonomia Erkidegoan batez beste urteko dauden enplegatzaileak

28.000 inguru ziren 2007an, eta horietatik %26,2 bakarrik ziren emakumeak. Azken 20 urteetako datuak ikusita, hau da, 1987tik 2007ra, ikusten da poliki-poliki emakumeak gehituz joan direla enplegatzaileetan, portzentajean 12 puntu irabaziz. Hurrengo taularekin batera doan grafikoak ez du zalantzarako aukerarik uzten, enplegatzaileen munduak bide estua utzi dio emakumeari enplegatzaileen artean. Hala, kontuan izanik grafikoak bere osoan agertzen duela urte bakoitzeko enplegatzaile kopuru totala, ikus daiteke emakumeen aurrerapena oso ezarian izan dela.

**TAULA 5.11.** Lanean dauden pertsona enplegatzaileak, sexuaren arabera. 1987-2007.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 1987 | 17,3 | 2,5 | 14,5 | 14,8 | 85,5 |
| 1988 | 14,7 | 2,2 | 15,0 | 12,5 | 85,0 |
| 1989 | 13,5 | 2 | 14,8 | 11,5 | 85,2 |
| 1990 | 16,5 | 2,7 | 16,4 | 13,8 | 83,6 |
| 1991 | 18,5 | 3 | 16,2 | 15,5 | 83,8 |
| 1992 | 19,4 | 2,4 | 12,4 | 17 | 87,6 |
| 1993 | 19 | 3,2 | 16,8 | 15,9 | 83,7 |
| 1994 | 19,3 | 3,8 | 19,7 | 15,5 | 80,3 |
| 1995 | 22,6 | 5,1 | 22,6 | 17,5 | 77,4 |
| 1996 | 22,9 | 4,8 | 21,0 | 18,1 | 79,0 |
| 1997 | 24,5 | 4,9 | 20,0 | 19,6 | 80,0 |
| 1998 | 21,1 | 4 | 19,0 | 17,1 | 81,0 |
| 1999 | 22,3 | 4,6 | 20,6 | 17,7 | 79,4 |
| 2000 | 25,4 | 6,2 | 24,4 | 19,1 | 75,2 |
| 2001 | 28,2 | 6 | 21,3 | 22,3 | 79,1 |
| 2002 | 30,6 | 7,8 | 25,5 | 22,8 | 74,5 |
| 2003 | 28,4 | 5,5 | 19,4 | 22,8 | 80,3 |
| 2004 | 29,7 | 7,3 | 24,6 | 22,4 | 75,4 |
| 2005 | 28,4 | 7,9 | 27,8 | 20,6 | 72,5 |
| 2006 | 28 | 7,7 | 27,5 | 20,3 | 72,5 |
| 2007 | 28,2 | 7,4 | 26,2 | 20,8 | 73,8 |

*Iturria*: EUSTAT. BJA.

**GRAFIKOA 5.1.** Portzentajea, emakumeak eta gizonak enplegatzaileen artean. 1987-2007.




*Iturria*: EUSTAT. BJA.

Enplegatzaileen artean emakumeek daukaten presentziak alde handiak erakusten ditu Lurralde Historiko batetik bestera. Hala, Bizkaian beren kargu jendea daukaten emakumeak guztiaren ia herena dira; Araban, berriz, %15era ez dira iristen.

**TAULA 5.12.** Pertsona enplegatzaileak, sexuaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2007.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Euskadiko A.E. | 28,2 | 7,4 | 26,2 | 20,8 | 73,8 |
| Araba | 1,4 | 0,2 | 14,3 | 1,1 | 78,6 |
| Gipuzkoa | 13 | 3 | 23,1 | 10 | 76,9 |
| Bizkaia | 13,9 | 4,2 | 30,2 | 9,6 | 69,1 |

*Iturria*: EUSTAT. BJA

Gaur egun, hiru lurraldeetan dago emakume enpresarien elkarte bat. Lehenengoa 1993an sortu zen, Arabako enpresen ehunean emakumeen ordezkaritza handiagoa lortzeko; bestalde, Bizkaiko Enpresari eta Zuzendari emakumezkoen Elkartea bi urte beranduago sortu zen, eta azkenik, Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkartea fundatu zen 1998an, emakumearen giza balioak, gizartekoak eta profesionalak defendatu eta garatzeko, enpresari edo profesionala den aldetik. Egitura mota honek erraztu egin behar luke enpresarien parekotasuna lortzea.

Sozietate anonimoetan dauden bazkide kapitalistak aztertuz gero, denetik dago. Hala, 1995etik emakumeek osatzen zuten kolektibo honen %37,6 eta 1998an parekotasun prin-

tzipioa lortu zuten, emakumeen proportzioa %41,2 izanik. BJAko adierazlearekin gertatzen den bezala, bada joera bat ia etengabe genero aldea murriztekoa, baina hala ere, alde handia dago adierazle baten eta bestearen proportzioan, espazioaren okupazioa alderatzen badugu grafikoetan.

**TAULA 5.13.** Bazkide kapitalisten kopuruaren bilakaera Sozietate Anonimoetan, sexuaren arabera. 1995-2005.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 1995 | 1071 | 403 | 37,6 | 619 | 57,8 |
| 1996 | 1129 | 435 | 38,5 | 645 | 57,1 |
| 1997 | 1154 | 440 | 38,1 | 657 | 56,9 |
| 1998 | 1259 | 519 | 41,2 | 684 | 54,3 |
| 1999 | 1333 | 585 | 43,9 | 692 | 51,9 |
| 2000 | 975 | 382 | 39,2 | 543 | 55,7 |
| 2001 | 964 | 375 | 38,9 | 539 | 55,9 |
| 2002 | 903 | 362 | 40,1 | 491 | 54,4 |
| 2003 | 891 | 353 | 39,6 | 488 | 54,8 |
| 2004 | 843 | 351 | 41,6 | 444 | 52,7 |
| 2005 | 842 | 350 | 41,6 | 444 | 52,7 |

*Iturria*: EUSTAT.
*Oharra*: argitaratutako azken datua 2005ekoa da.

**GRAFIKOA 5.2.** Bazkide kapitalisten portzentajearen bilakaera Sozietate Anonimoetan, sexuaren arabera. 1995-2005.




*Iturria*: EUSTAT.
*Oharra*: argitaratutako azken datua 2005ekoa da.

Ia alderdi politiko guztiek jasotzen dute beren helburuen artean enpresa mailako erabaki eremuetan parekotasuna lortzea. Kongresuak onartutako *Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoak* eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak jaso dituzte zenbait neurri emakumeen presentzia sustatzeko merkatal sozietateen zuzendaritza organoetan.

Ibex 35 barruan dauden enpresetan, bakarra ez dago presidente emakumea daukana. Datu hau komuna da, Espainiako burtsetan kotizatzen duten likidotasun handieneko enpresarik gehienetan. 2006 eta 2007 urteetan indize hori osatzen duten enpresetatik bakar batek izan du presidente emakumezkoa.

**TAULA 5.14.** Presidentzia eta Administrazio Kontseilua, IBEX 35 osatzen duten euskal enpresetan. 2008.

| | PRESIDENTZIA | | ADMINISTRAZIO KONTSEILUA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
| | ABS. | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| BBVA | 0 | 1 | 1 | 7,7 | 12 | 92,3 | 13 |
| GAMESA | 0 | 1 | 0 | 0,0 | 9 | 0,0 | 9 |
| IBERDROLA | 0 | 1 | 2 | 12,5 | 12 | 75,0 | 14 |
| **GUZTIRA** | **0** | **3** | **3** | **8,3** | **33** | **91,7** | **36** |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, web orrialdeak oinarri hartuta.
(Kontsulta Data: Azaroa 2008)

Zuzendaritza organoen osaerari buruzko datuak ez dira baikorragoak. Hala, Ibex 35 osatzen duten euskal enpresen Administrazio Kontseiluetan emakumeek daukaten ordezkaritzak ez du %10a gainditzen; halere Ibex 35eko enpresa guztien kontseilari emakumezkoen batez bestekotik gora dago (%6,4 da batez bestekoa). Europar datuak baikorragoak dira, nahiz eta parekotasunetik urrun egon. *Europako Batzordeak emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruz egindako 2007ko txostenean* esaten da "zuzendarien herena baino gutxiago dira emakumeak, eta boltsan kotizatzen duten Europako berrogeita hamar enpresarik inportanteenetan emakume bat zegoen hamar gizoneko 2005ean" (6).

(6) Europako Batzordeak emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruz egindako 2007ko txostena, 6. orr.

**TAULA 5.15.** Ibex 35 osatzen duten enpresen Administrazio Kontseiluen bilakaera, sexuaren arabera. 2008.

| URTEA | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 2004 | 503 | 13 | 2,6 | 490 | 97,4 |
| 2005 | 478 | 10 | 2,1 | 468 | 97,9 |
| 2006 | 463 | 16 | 3,5 | 447 | 96,5 |
| 2007 | 497 | 32 | 6,4 | 465 | 93,6 |

*Iturria*: EIN. *Emakumeak eta Gizonak Espainian 2008.*

## UNIBERTSITATEAK 5.4

Azkenik, Unibertsitatea eragile sozial garrantzizkoa da. Gaurko egunean, Euskal Unibertsitate sistema osatzen duten hiru unibertsitateak, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea, gizonek zuzentzen dituzte. Estatu mailako datuak aztertuta ikusten dugu errektoreen artean bi emakume bakarrik zeudela kargu horretan 2007an. Unibertsitateetako Zuzendaritza Kontseiluetako beste kargu inportante bat Idazkaritza Orokorra da. EAEn, hiru idazkaritza orokorretan, emakumeen esku daude bi. Zuzendaritza kontseiluetan emakumeak duen ordezkaritza eskasa da, bereziki Deustuko Unibertsitatean, han zuzendaritza kontseilua osatzen duten 10 lagunetik 2 bakarrik dira emakumezkoak. Euskal Herriko Unibertsitatean zuzendaritza kontseiluko herena emakumeak dira eta Mondragon Unibertsitatean zuzendaritza organo gorena osatzen duten 8 lagunetik 3 dira emakumeak.

**TAULA 5.16.** Errektoregoak, Idazkaritza Orokorrak eta Zuzendaritza Kontseiluak, sexuaren arabera. 2008.

| | ERREKTOREA | | IDAZKARI OROKORRA | | ZUZENDARITZA KONTSEILUA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | E | G | E | G | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
| | ABS. | ABS. | ABS. | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Deustuko U. | 0 | 1 | 0 | 1 | 2 | 20,0 | 8 | 80,0 |
| Euskal Herriko U. * | 0 | 1 | 1 | 0 | 5 | 33,3 | 10 | 66,6 |
| Mondragon U.** | 0 | 1 | 1 | 0 | 3 | 37,5 | 5 | 62,5 |

*Iturria*: Egileek prestatutako informazioa, web orrialdeak oinarri hartuta. Azaroa 2008.

*Oharra* (*) Errektoreordetzez gain, Unibertsitateko gerentea ere sartu da.

(**) Errektoreordetzez gain, Zuzendaritza Kontseilua osatzen duten zuzendaritzak ere sartu dira.